

uk

236. zenbakia / 2013ko uztailaren 9a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
 Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
 Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
 Urte osoan argazki zahar eta barriak
 Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
 Urtean 20 euro

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk ere gura dot UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

www.renault.es / 902 333 500

RENAULT CAPTUR HARRAPATU BIZITZA



Renault Captur gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,7tik 5,4ra. CO2 isuria (g/km) 96tik 125eraino.

RENAULT QUALITY MADE  Renault generazioan in 

DRIVE THE CHANGE 

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
 KOLABORATZAILAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia, Armando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lekoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Bermeo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Erandioko Udala	 Sestelako Udalak	 Urdulizko Udala
 Plentziako Udala	 Aldizkari honek Eusko Jauriaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du	
 Bizkaiko Foru Aukundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturari Saila Departamento de Cultura		

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Txorimalo arduratsua Gorlizen.
6. FACEGUK. Zer gertatzen zaio eguraldiari?
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorlizko eliza, 1960.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Ziortza Ruiz Linaza.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Egurragaz ogetan Sopelan.
28. ARGAZKIA. Portalena Hotela (Gorliz), 1920.
30. BERBETAN. Jose Allende.
34. FOTOGRAFIA. Hodei Torres.
40. SAKONEAN. Pinosoloko auzia (Leioa).

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Kimuak katalogoa.
43. MUSIKA. Musiketxea ekimena.
44. LIBURUAK. Ignacio Aldekoa ipuin-lehiaketa.
45. KIROLAK. Pala txapelketa.
46. MUNDUKATUAK. Garazi Sanchez.
47. JENTILKOBA. Galtzagorriak.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Izokin-biribilkia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Urresti-Urkiza familia, 1905.
54. AITORMENAK. Tania de Sousa.

Azala: Hodei Torres

www.ukaldizkaria.biz



30 Jose Allende

Berbetan

Ekonomia Aplikatua katedradun getxotarragaz hirigintzaz, HAPNez, LZPez eta abarrez egin dugu berba.



11 Ziortza Ruiz Linaza



46 Garazi Sanchez

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
 □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

Armando Llamosas

> arkeologoa

Izan direlako gara...

Ikasturtea amaitu da. Kaleak umez bete eta eskolak, ordea, hustu dira. Urtero bezala, hamaika lan izan dugu ikasturte amaieran: musika eta antzerki-ekitaldiak, bilerak, notak... Gurasoen lana, dudarik gabe, gogorra da (beti) sasoi honetan. San Nikolas ikastolak bere ohiko ekitaldia egin du eta, *kasualitatez*, han geunden. Ekitaldi hauek, badakizue, ezin politagoak dira zure seme-alabek parte hartzen dutenean eta, aldiz, ezin aspergarriagoak besteenek parte hartzen dutenean. Egoera zoriontsu/aspergarri honetan nengoela, jende andana ikusita, galdera batzuk etorri zitzaizkidan burura: Zenbat ikasle eta guraso zeuden? Askok, bete-beteta zegoen patioa. Zenbat jende izan du gure kultura euskaraz ikasteko aukera, urtez urte, honelako lekuetan? Mordoak. Eta nori esker?

Dakigunez, aurten San Nikolas Ikastolak 50 urte bete ditu (Sopelako Ander Deunak 45). Horregatik, hemen eta han azaldu da sorreraren prozesua (UKn bere bai): pisuetan, ministerioari engainatuz, erdi-klandestinoa, eskukada bete ikasle, aldatketak, estrategiak... Zelako lana egin zuten guraso horiek 60ko hamarkadan! Sopelan ere berdin gertatu zelakoan nago (2018an jakingo dugu, 50. urteurrenean). Ez dut berriro kontatuko, guztiok dakizue eta (edo irudika dezakezue). Hor geunden hamaika guraso zoriontsu/aspertuta, mila gailu motarekin irudiren bat hartzeko; hor zuzendaria, mikrofono eta multzo kontrolaezinekin borrokan; hor irakasleak, umeak zaintzen, antolatzen, lasaitzen eta... haiekin dantzatzeko, *lan-streptea* egiten (haien lan konplexua bistan uzten zuten eta!); hor hamaika ikasle, urduri, zalapartatsu, jasanezin...

Ordura arte inor ez zen konturatu (gurasook batik bat) erdian zegoen tarta erraldoia buruko minez, beldurrez eta ausardiaz beteta zegoela. Hori poza gurea! Gure seme-alabak nahi dugun eskolara eraman ahal izatea! Izan ere, askok kultura eta hizkuntzaz aparteko beste arrazoi batzuegatik egin dute aukera



hori: hurbiltasuna, kalitatea... Baina gehienetan, oraindik, eskola publikoaren eboluzioa gorabehera, aukeratzen dute hezkuntza eta hizkuntza euskaldunean murgiltzea.

Ikuskizun *aspergarria* eskaintzen zutenak nire semeak ez zirenez, harrotasuna sentitu nuen: hori poza lehenengo gurasoena (Algortakoak, Areetakoak, Sopelakoak...)

ekitaldi hori ikustean! Zein zoriontsuak garen gure aurrekoek beren lana ondo egin zutelako! Horretan nengoela, izenburuko leloa etorri zitzaigun: *Izan direlako gara eta garelako izango dira*. Askotan, esloganak errepikatzen ditugu esanguraz konturatu gabe, baina kulturaren, gure kulturaren batez ere, badauka zentzua lelo horrek. ○

gu geu

Opor aurretik

Esku artean duzun UK hau azkenaurrekoa da, opor ostean gehiago eta... ahaleginduko gara behintzat! Baina, gero gerokoak.

Hamaika kontu jaso ditugu oraingo honetan ere, aukera andana duzu han ala hemen, hau ala hura ezagutzeko, hautatzeko, gozatzeko, kritikatzeko... aspertu arte ondo pasatzeko! Berbarako, jaiak noiznahi eta nonahi.

Oporrak aipatu ditugu, eta zin egiten dizugu irakurle, benetan, gu prest gaudela oporretan joateko! Eta osasuntsu joan gurako genuke... Izan ere, azken boladan ez dugu zortea lagun! Sakelako telefonoak galtzen ditugu, argazki-kamera eta objektiboak lapurtzen dizkigute, orkatila bihurritu duen lankidea ere hor dabil...

Nor edo nor laguntzeko prest balego, dohaintzaren bat egin nahiko baligu (*inuzenteak gu, bai! Esperantzara kondenatuen artean bizi gara-eta...*) bihotz-bihotzez eskertuko genioke, eta esaterako, besteak beste: bizi osorako UK-ko harpidetza oparituko genioke...

UK-ko lan-taldea



GORLIZ, 2013KO UZTAILA

Txorimaloak Gorlizen / Gaminiz Bizirik auzo elkarteak zenbait txorimalo ipini barri ditu Mungia Bidea errepidean; horien bidez, autoek oinezkoak harrapatzea saihesteko asmoa dauka elkarteak. Izan ere, Mungia Bideko errepideak ez dauka inolako espaloirik; hori dela eta, auzokideak behartuta daude errepidea ibilgailuakaz partekatzea, horrek dakarren arriskuagaz. Gorlizko Udalak espaloia eraikitzeko proiektua dauka, baina bitartean, harrapatzeak gertatzeko arriskua oso altua da. Horrenbestez, txorimaloei kasu! Eta kontuz gero oinezkoakaz!! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Ilatzi galdera **gure facebooken** eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer gertatzen zaio eguraldiari, oporraldian eraginik izango du?




Erandio

Toñi Bueno Iñigo

> pedagogo

Txantxak egiten ditugu, baina zerbaiten ondorioak jasaten ari gara. Nire ustez, daukagun eguraldia klima aldaketaren ondorio da: udak gero eta okerragoak dira, eguzkia gitxiago ikusten da eta horrelako eguraldira egokitu beharko dugu. Urtaoak nolabait aldatu dira: neguan ia hotzik ez eta udan berorik ez.



Erandio

Irati Urriz Rodriguez

> ikaslea

Entzun dudanez, klima aldatzen ari da eta horregatik eguraldi aldaketa hau. Beste batzuek diote aurtengo kontua besterik ez dela, eta hori gura nuke, hondartza oso gustuko dut eta. Gaur eguzkia daukagu, espero dut horrela segitzea, baina ez dakit...




Erandio

Vanesa Fradejas Garcia

> irakaslea

Udabarririk ez dugu izan eta emoten du udarik ere ez dugula izango. Halere, espero dugu aldatzea eta hobetzea, aurtengoa oso arraroa da eta. Oporraldia ere baldintzatuko du, seguruenik. Behintzat honetara ohituta nago: normalean Galziara joaten naiz eta honen antzeko eguraldia dago, edo okerragoa.



Bilbo

Xabi Allende Martin

> langabetua

Espero dut hondartzara joan ahal izatea, oso beltzarana naiz eta gustuko dut. Urtero joaten naiz oporretan Caceres aldera eta han bero handia dago, eguerdian ezin gara urten kalera. Beraz, agian aurrean hobeto egongo gara eguraldi honegatzat, horrenbeste berorik barik.



Erandio

Miguel Rodiño Calvache

> informatikaria

Oraindik ez naiz hondartzara joan eta espero dut eguraldiak hobera egitea. Oporretan hemen geratzeko ideia nukan, baina ez dakit, pentsatuko dut. Beharbada irailean hartuko ditut oporrak, eguraldiaren arabera; agian ordurako hobeto egongo da.



Leioa

Amaia Barrena Oleaga

> etxeandrea

Nik ez dut hondartza zapaldu oraindik, eguraldi honegatzat pentsatu ere ez, baina gogoa daukat. Ez dakit zergatik horren eguraldi txarra, agian aldaketa klimatikoaren ondorioz izango da: berotegi-efektua edo horrelako zer edo zer. Litekeena da oporretan hemen geratzea eta, beraz, gura nuke hondartzara joan.



[lehen]

INDALECIO OLANOGURENEN/AFGAZIVA



[orain]

ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / GORLIZKO ELIZA, 1960

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > Ama Itsasoa SOS



Ereaga, 2013ko uztaila

Testua: **Iñigo Kortazar** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Zer da gaur Donostian

Sorosle prestu danak dira ondo prestatzen. Daukaten ligoi fama ez die inork kentzen. Gaur sorosle lanetan gazte bat hain zuzen Prismatikoetatik dabil begiratzen. Egongo da hurrengo ligea fitxatzen.

Hondartzan izaten da milaka istripu. Sorosleek gaituzte jagoten in situ. Horretan baditugu jakitun, aditu. Baina sorosle honek du hainbat meritu: oinak zikindu barik salbatuko gaitu.

Baina azken mezua badoa apropos. Batzuk draga handia egiteko gogoz. Punta Luzero dana salbatzeko asmoz, batzuk hor ari dira buru eta ahots. Arriskuan dago ta Ama Itsasoa SOS

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

agurra > Tas-Tas irratia



Tas-Tas irratia FMko 97an eta webgunean

Ez genuen sinetsi gura, baina egia da: *“Tas-Tas Irrati Librearen 21 urte luzeko bizitzan bidalitako mezurik triste eta mingarriena hau izango da, ziur aski: gure irrati librea ez da berriz airean egongo eta Elkar-tea ere desagertu egingo da”*. Martxoan egindako Ezohiko Batzarrean hartu zuten erabakia, denboraldia amaitu eta irailetik aurrera uhinek ez dutela Tas-Tasen aho-tsik ez doinurik hedatuko: *“Gauden egoe-*

ran ezin dugu gure helburuak garatzen jarraitu, ezta daukaguna mantendu ere. (...) pozik egon behar dugu 21 urte baino gehiago etengabe, kosta ahala kosta, lizentziarik gabe, eta herri-mugimenduko beheraldietan uhinei eusteaz gain, gure irratia geurean eta nazioartean ere ezaguna izateagatik eta gaur egun, irrati libreen eta elkar-te-mugimenduen historian bere lekua duelako”. ◯

Info+: tas-tas.org

bisita > Iruña-Veleia aztarnategi arkeologikoa

Baten bat oporraldian murgildu da daborduko... Zortedun horientzako ha maika aukeren artean, bi eskaini gura ditugu: lehenengoaren barri hurrengo le-rootan, eta bigarrenarena beheko albiste-an. Hala, Araba aldera hurbiltzeko asmoa daukanarentzat, hau polita da Iruña-Veleia aztarnategi arkeologikora bertar-tzea. Hizkuntza arloko eztabaidak alde batera utzita (horiek jarraitzeko hobe bes-

te bide batzuk hartzea), aztarnategia eza-gutzeko bisita-programa martxan dago, azaroaren 3a arte; hauxe da ordutegia: martitzenetik barikura, 11:00-14:00 eta 16:00-18:00; jaiegunetan, 11:00-14:00. Bisita gidaturik gura izanez gero, aurretik erreserbatu behar duzue, egunean bertan ere bai. Halaber, sarean bisita birtuala egi-teko eskaintza ere badago. ◯

Info+: 945 40 30 44



Aztarnategiaren irudi bat



Harremanetarako: 626 859 477

urteera > Basajaunaren ibilbidea

Busturian Basajaunaren Ibilbidea (BI) ekimena ipini du martxan Urdaibai On Kultura eta Aisialdi Zerbitzuak Kooperati-bak. Horren baitan Rober Garai sortzai-learen Basajauna (Bx4) lana ikusten da Busturiako Berezi Basoan, Basajaunaren irudia artistak lekuan bertan batu dituen begetalez sortua, Urdaibaiko paisaia zirra-ragarriez gainera. Halaber, Edorta Jime-nez idazlearen “Euskal Mitologiaren sus-

traiak Urdaibai-Busturialdean” berbaldiaz edo Doroteo Zobaran musikari eta an-tzezlearen istorio eta ipuinez gozatzeko aukera dago. Urteera Axpe auzoan hasten da, tren geltokitik hurbil (itsasontzi zer-bitzuak ere badaude); zapatu, domeka eta jaiegunetan (bestelako egunetan ere, adostuz), 10:30ean gazteleraz eta 12:00-etan euskaraz. Salneurria: 5 euro. ◯

Info+: www.urdaibaion.com

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

19,90€
BAKARRIK
BEZ BARNE

cianoplan
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehengo garaiak... ...itsasoa


www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

OLGETAN SOLAS



ERANDIOKO JAIETAN

2013



ARGAZKIA: AMA-LUR

Familian...

* Familia bakoitzak talde bat osatuko du: gurasoetako bat, edo biak, eta seme-alabetako bat, edo gehiago



← Olgetan Solas 2013: non eta noiz

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.erandiokoeuskarazerbitzua.com
euskara@erandioko-udala.net - ☎ 944890128



"Benetan herrikoak eta parte-hartzaileak diren jaiak antolatu gura ditugu. Auzokideek parte har dezatela sortzen, egiten eta gozatzen!"

Ziortza Ruiz Linaza > Larrabasterrako jai herrikoiak, erronka!

'Tomasen landa' izeneko zelaian jarri digu hitzordua Ziortza Ruiz sopoloztarrak, Larrabasterrako jaien inguruan berba egiteko. Ez da kasualitatea. Kontatu digunez, lehen bertan egiten ziren jaiak: "70eko hamarkadan, gazte ugari etorri zen Larrabasterrara bizitzera, tartean nire gurasoak. Koadrilak osatu zituzten, euskal kulturaren inguruan elkartzen... eta jaiak landa honetan antolatzen zituzten". Geroztik, auzoa asko aldatu da, eta jaiak ere bai. Egun, Karmengo jaiak errepidearen bestaldean egiten dira. Eta masifikatu dira, nortasuna galdu dute: "Jendez lepo egoten dira, baina xarma barik". Hori da, hain zuzen ere, Jai Batzordeak duen erronka: "Egoerari buelta eman behar zaiola ikusten dugu, herriko jendea inplikatu behar dela, jaiari nortasuna eman. Benetan herrikoak eta parte-hartzaileak diren jaiak antolatu gura ditugu. Auzokideek parte har dezatela, sortzen, egiten eta gozatzen!". Helburu horregaz, hainbat barritasun izango dituzte aurtengo jaiak: txupinazoa, itsasoko izakiez moztortutako kalejira... "Lotura sortu gura dugu auzokideakaz, protagonismoa euren da!". Ruizek soziologia ikasi zuen, eta egun Ander Deuna Ikastolako irakaslea da. Jai Batzordean ibiltzeaz gain, beste hainbat saltsatan ibili da, betiere baikortasuna galdu barik eta ingurua aldatzeko gogoz: "Mundu eta gizarte honen aldaketa nahi, sentitu eta behar nuen".

Kultura, “estrategikoa” Getxon

Kultura 2012-2016 proiektuko diagnostikoaren arabera **“kultura balio estrategikoa eta hiri-markaren bultzatzaile indartsua da”** eta kultur taldeakaz harremana hobetzeko beharra ei dago.

Getxo Kultura 2012-2016 proiektua abiatu zuen Udalak iaz, bere kultur-ekintzen eredia eguneratzeko eta barrikusteko. Lehenik, diagnostikoa egin zuen eta ostean, ondorio nagusiak jakinarazi ditu: **“Getxorentzat kultura balio estrategikoa da, baita hiriko markaren bultzatzaile indartsua ere”**. Gainera, kultur taldeakaz dagoen harremana hobetu beharra dagoela ere nabarmendu du Udalak.

Getxoko Kultur Etxearen eredia eguneratzera bideratuta dago Kultura 2012-2016 proiektua eta, horren baitan, egoerari buruzko azterketa eta udalerriko diagnostiko kulturala egin du Udalak. Ondorioztatu duenez, **“kultura balio estrategikoa da Getxorentzat, hiriko markaren bultzatzaile indartsua izateaz gainera”**. Amaierako gogoeten artean ere sumatu dute **“beharra harremanetarako bideak hobetzeko kultur eragile, elkarte eta enpresen sare trinkoagaz”**. Koldo Iturbe Kultur zinegotziaren arabera, ikerketaren ondorioetatik abiatuta, oinarriak finkatuko dituzte kultur-eredu barria eraikitzeke.

Udalak dioenez, kultura alderdi positiboa izaten jarraitzeko Kultur Etxea beharrezkoa dela ikusi da, eta eraikitzen ari diren ekipamendu barriak horretarako aukera izango direla uste du. Ildo horretan nabarmendu du kultura **“hiri-markaren bultzatzaile indartsua”** dela, eta garapen ekonomikorako garrantzitsutzat jo du: **“Kultur Etxearen zeregina, jarduera eta pro-**



Getxo Antzokiko lanak amaitzeko gitxi falta da

gramazio handiak oso ondo baloratuta daude eta Euskadin erreferente dira”.

Gainera, Udalak ezinbestekotzat jo du elkarlana talde kulturalen sareagaz, esan bezala: **“Horretarako burutzen ari diren jardueren artean, elkarte kulturalen egune-**

“Kultur taldeentzako 104.000 euroko diru-laguntza emon du Udalak, iaz baino %20 gitxiago”

roko lana sustatzearena dago, Kultur Etxea egiten ari den plan estrategikoa nagusiki nabarmentzen duen jarduera eta lankidetzarako ildo dena”.

Prozesu hau ere kultur gintzaren esparruko eragile, elkarte eta profesionalekin batera egin dutela azpimarratu du Udalak, zelan eta **“lan-saio eta dinamika**

partehartzaileen” bitartez. Horiak baliatu dituzte **“beren iritzia eta ekarpenak ezagutzeko”** sektorearen egoeraz eta etorkizunetarako ikuspegiaz.

Horrela, herriko elkarten lana **“oinarritzakoa dela”** deritza Udalak, zertarako eta **“herriko eskaintza kulturala indartzeko, baita elkartegintza sustatzeko ere: elkarte kulturalen presentzia aktiboa duen udalerririk erakusten du haren aberastasuna eta herria bera bizirik dagoela”**.

Hain zuzen ere, Getxoko kultur taldeen artean urteko diru-laguntzak banatu barri ditu, **“beren jarduerak aurrera eramaten laguntzeko”**. Udalak 104.000 euro emon ditu; hots, iaz baino %20 gitxiago, urte hasieran iragarri moduan. Murrizketak kopuru orokorrari dagokio. ○

Info+: www.getxo.net

Blues doinuak 25 urtez

Mende laurdena ospatuko du jaialdiak 18tik 20ra



Sharrie Williams abeslaria

Nazioarteko Blues Jaialdiak 25 urte bete ditu eta uztailean ospatuko du: 18tik 20ra izango dira kontzertuak Algortako Biotz Alai plazan, baita The Piper's Irish Puben ere, azken egun horretan.

Sharrie Williams kantariak abiatuko du jaialdia hilaren 18an. *Bluesaren* dama handienakaz alderatu dute askotan estatubatuarra, eta The Wiseguys taldeagaz batera igoko da taula gainera. Aretha Franklin edota Tina Turnerren gisako kantari ezagunek *gospel*, *blues* edota *jazz* abeslariarengan izan dute eragina.

Eta Williamsek lekua utziko dio biharramunean Dana Fuchs Band taldeari, *Bliss Avenue* disko barria aurkez dezaten: *blues*, *rock* eta *soul* doinuak uztartu dituzte. Dana Fuchs, egungo *blues* kantari garrantzitsuenetakoa da eta disko honegaz

beste norabide bat hartu ei du bere jarduerak, baina ez antza estiloari dagokionez: **“Disko barriko hitzek, eduki humanista dutenek, erakutsi dute Fuchs bilakaera musikagintzan”**.

Jaialdia ixteko, barriz, harmonika-jotzaile ezagunenetakoa aukeratu dute, Charlie Musselwhite. Uztailearen 20an joko du, zapatuan. Kontzertuak 21:00etan hasiko dira eta sartzeko 6 euro ordaindu behar da.

Baina oraindino badago gehiago; izan ere, The Piper's Irish Pub tabernak ere kontzertua antolatu du zapatu horretarako, Los Brazos taldeagaz: *blues*, *rock* eta *rhythm&blues* erritmoez bustiko dute taberna 23:00etatik aurrera, Jaialdiko egitaraua amaitu eta berehala. Emanaldi honetara sartzeko doakoa izango da. ○

BIDEGORRIEN SAREA HANDITUKO DUTE

Udalak bidegorri-tarte barriak egingo ditu udalerriko bost lekutan, uda ostean: Areetako Maximo Aguirre, Nagusia, Cervantes eta inguruko kaleetan, eta Neguriko Leioa etorbidean eta Lexarretan. 2012-15eko Bidegorrien Planaren lehenengo faseari dagokio lan horiek; orain lizitazio fasean daude eta behin hasita, 2 hilabetez luzatuko dira; 60.500 euro inguruko aurrekontua izango dute. Etorkizuneko bigarren fasea, barriz, Algortan eta Andra Marin gauzatzeko da eta Planak, orotara, 32 kilometroko bidegorri sarea aurreikusten du.

Info+: www.getxo.net

UDA HONETAN ERE GETXO AKTIBATU!

Merkataritza-kaleak dinamizatzeko kirol, kultur eta aisialdiko Getxoaktibatu! ekimenaren barruan jarduera gehiago antolatu dituzte uztaileko, besteak beste: uztailearen 11n, Pakea Bizkaia ontzia ezagutu ahal izango da; 12an, hitzaldia egongo da futbol-atezainen bilakaerari buruz, Deportes Gaztañaga dendan; 13an, Kayak urteera egingo dute Ereaga hondartzatik eta pilates saioa Algortako Geltokia plazan; 17an, txangoa egingo dute traineruagaz; 20an, arrantza eta paddle-surf tailerak egingo dira; 24an, hitzaldia egongo da Portu Zaharra tabernan eta 27an, bela-eskola ezagutu eta bertako lagunakaz urten ahal izango da itsasora.

Info+: www.getxo.net

OSASUN MENTALEKO ZENTRO BARRIA

Osasun Mentaleko eguneko ospitalea zabaldu du Osakidetza Areetan (Paulino Endivia, 3). Arreta-zerbitzua Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarearen barruan dago eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eguneko etengabeko arreta eskainiko die. Horrela, orain arte Bizkaiko beste eguneko ospitale batzuetara joan behar zuten 30 pazienteri arreta emango diete. Sare osoa 14 zentrok osatzen dute eta 500 paziente artatzen dituzte.



%50 arteko Beherapenak

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Daniellis eta Danieuris Moya Avila > Bi Deak musika taldea

“Ez da beharrezkoa ikusleek gerria mugitzea erantzuten dutela konturatzeko”



Euskarazko abestiak ere badituzte euren erreperorioan

Pianoa eta ahots bi: Kubatik etorrira, habanera, son edo bolero doinuez bustitzen ari dira Euskal Herria Danieuris eta Daniellis Moya Avila ahizpak. Hango abesti ezagunen bertsoiak batera ekarri dituzte poeta kubatarren testuetan oinarritutako abesti barriak, baita euskaldunen olerkietan oinarritutakoak ere, euskaraz. Aspaldi daude lotuta Euskal Herriagaz, bertako lagun asko daukate eta. Gure tauletara aurten igo dira lehenengoz eta pozarren daude. Lurralde osoa bisitatuko dute udan; Algortan, adibidez, ekain akabuan kantatu zuten.

—Bikoa zarete, zer musika mota egiten duzue?

—Pianoa jotzen eta irakasten dugu, eta taldean abestu ere egiten dugu; orain dela 15 urte hasi ginen Bi Deak bikoteagaz. Musika kubatarren erreperorioa daukagu eta, duela hiru urte, poeta kubatarren olerkiei musika ipintzen hasi ginen, abesti barriak sortuz. Izan ere, bikotea jai zen gure musika egiteko ideiaz, bes-teen musika errepikatzen ez segitzeko, baina Kubatik kanpora ia derrigorrezkoa da tradiziozko zerbait jotzea; ikusleakaz

konektatzeko modua ere bada. Hala ere, gure erreperorioaren zatirik handiena aurretik argitaragabea da, hau da, geuk sortua.

—Euskal olerkiak ere abesten dituzue, Pirritx eta Porrotxegaz kolaboratu duzue.

—Oso ausartak agian, hizkuntza jakin barik abesten dugu eta. Euskarazko liburuak ikusteko aukera izan dugu eta olerki batzuk ere emon dizkigute, musika ipintzen diegula jakinda.

—Nondik zuen lotura gure herriagaz?

—Bertako lagun asko dugu. Norbait eza-

gutu eta ondo moldatuz gero, jende gehiago ezagutzen da beraren bitartez; horrela gertatu zitzaigun. Gainera, badirudi gure lana gustatu zaiela eta lagundu dute hemen ezagutarazteko. Oso keinu polita izan da hainbeste pertsonak laguntzea guk bertan abesteko.

«Uda osoan emongo ditugu kontzertuak Euskal Herrian zehar»

—Erritmo aldetik zer musika mota da zuena: dantzatzekoa, entzutekoa?

—Danetarik apur bat. Dantzatzeko musika konposatzen dugu, baina talderik ez daukagunez apur bat mugatuta gaude: zerbait lasaiagoa egin behar izaten dugu, habanerak eta. Baina dantzagarriak ere badauzkagu: son, cha-cha-cha, e.a.

—Euskal Herrian lehenengoz abesten ari zarete, noiz arte lotuko zarete?

—Bai, baina etxean bezala gaude. Lagun asko daukagu hemen eta maitasun handiaz hartu gaituzte. Oraingoz bost kontzertu emon ditugu, baina ikus-entzuleek ere oso ondo hartu gaituzte eta esperientzia politak izan ditugu daborduko. Uda osoan lotuko gara eta kontzertu asko daukagu, gero eta gehiago ateratzen dira.

—Zelako ikuslegoa gara euskaldunak, oso geldoa?

—Hango lagunak esaten ziguten prest egoteko, euskaldunak apur bat hotzak zirela, agian klimaren eraginez ikuslegoa apur bat itxia zela... Baina oso pozik gaude: ez da beharrezkoa ikusleek gerria mugitzea erantzuten dutela konturatzeko. Politak da ikustea entzuten dizutela, amieraraino geratzen direla, erantzuten dutela, adibidez, irribarregaz. Hainbeste laudorio esaten segitzen badute azkenean harrotuta itzuliko gara Kubara. ○

Arrozez lepo Aixerrrotan LVIII. Paella Lehiaketa uztailaren 25ean izango da Aixerrrotan, aurten eguenean



Toldoen zozketa uztailaren 11n izango da

Itxas Argia elkartearen paella lehiaketa uztailaren 25ean izango da, eguenean. Prestaketa martxan da eta toldoen jabe direnei uztailaren 8 eta 9an banatuko zaizkie, 19:00etatik 21:00etara. Toldorik ez daukatenez zozketan parte har dezakete hilaren 11n; zenbakiak 09:00etatik 21:00etara hartu behar dira Itxas Argiaren lokalean (Iturribide 24, bh.) eta zozketa 21:00etan hasiko da. Hilaren 27an, zapatuan, itzuli behar dira (12:00-14:00).

Muntaia, bestalde, hainbat egunetan egingo da: hilaren 13, 14, 20 eta 21ean. Lagundu gura duenak 08:00etan egon behar du Itxas Argiaren lokalean edo

09:00etan zelaian. Tutuak kentzeko, barritz, lehiaketaren biharamunean lotu dira zelaian, uztailaren 26an, 09:00etan.

Lehiaketa eguna dela eta, izen-emotea 11:30ean izango da; dantza erakustaldia 12:10ean. Paellak 13:30etik 14:30era aurkeztu behar dira eta sariak 17:30ean banatuko dituzte. Horren ostean izango da erromeria, Triki Ta Ke taldeagaz. Gainera, aurten sari berezia izango du paella aurkezten duen talderik gazteenak, baldintza bakarragaz: taldekideak 18 eta 30 urte bitartekoak izatea. Ondo pasa eta ez gehiegi bete! ○

Info+: itxasargiaelkartea.wordpress.com

PUNTUEUS INTERNET DOMEINUARI ATXIKITUKO ZAIO GETXOKO UDALA

Euskara eta euskal kultura sustatzeko PuntuEus interneteko domeinuari atxikitze prozesua hasiko du Udalak. Domeinua 2014ko apirilean indarrean sartzea espero da. Orduetik aurrera, harreman elektronikoetan erabiltzen diren paper guztiak mailaka aldatzen joango direla jakinarazi du Udalak, “horrela kostua zero izanik”. Gogorarazi duenez, PuntuEus Euskal Kulturaren Komunitateak eta Euskarak interneten duten izena da, kultura-aniztasunaren baitan interneten duten aterpe teknologikoa. Domeinuak euskara lehen mailako hizkuntza bihurtuko du interneten: mundu mailako aitortpena eskainiko dio eta hura sustatzeko bitarteko eraginkor bihurtuko da. PuntuEus elkargoa 2008ko apirilaren 2an sortu zen eta gaur egun 58 elkartetik eta taldek osatzen dute. ICANN-Internet Corporation for Assigned Names and Numbers erakundeak, IP helbideak esleitzeaz eta domeinu izenen sistema kudeatzeaz arduratzen denak, ekainaren 14an onartu zuen PuntuEus domeinua.

Info+: www.puntu.eus

GETXO, INOIZ KONTATU EZ DIZUTEN MODUAN, BISITA GIDATUAK

Bisita gidatuak abiatu ditu Udalak, berriro ere, Bizkaiko Zubira eta Algortako portu zaharrera, hemendik eta irailaren 30era arte. Bisitek 75 minutu iraungo dute eta aipatu inguru biak “era atseginetan eta didaktikoan ezagutzeko aukera” emongo diete bisitariei, ibilbidea pertsona batek gidatua izateaz gain antzetzua ere izango delako. Aurreko urteetan izandako eskaera ikusita, bisitak gaztelaniaz egingo direla iragarri du Udalak, baina euskaraz eta ingelesez egiteko aukera ere egongo da, aldeztu aurretik eskatuta; bisitaldian parte hartzeko 3 euro ordaindu behar dira. Eguerdian hasiko dira eta informazio gehiago topatuko duzu Udalaren webgunean eta Turismo Bulegoan.

Info+: www.getxo.net

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Jon Lazkano > euskara zinegotzia

“Euskararen sustapena ez da administrazioaren zeregina soilik: eragile sozialak behar ditugu”

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu du Udalak 2013-2017 eperako. Elhuyarrek dinamizatu du prozesua eta Jon Lazkano zinegotziak azaldu dizkigu Planaren nondik norakoak.

—Elhuyar taldeak garatu du Plana osatzeko prozesua, zelakoa izan da?

—Lantaldea Aholku Batzordeko partaide eta bestelako eragileekin osatu zen, 30 bat lagunekin. Euren gogoetak jaso dira dokumentua osatzeko. Gerora alderdi gehienek ere ekarpenak egin dizkiote.

—Lau urte daude Plana garatzeko, zeintzuk dira helburu nagusiak?

—Erronka garrantzitsuak ditugu. Euskalgintzak beharrezkoa du ezagutza eta hiztunen kopurua handitzea, euskalgegien bidez segituko dugu zabaltzen horretarako kanpaina. Era berean, inoiz baino euskaldun gehiago daukagu 30-35 adin tartean, eta oso garrantzitsua da seme-alabei euskara transmititzea etxean. Erabilera esparruak ere zabaltu behar ditugu euskaldun komunitatea trinkotzeko: aukerak emon behar ditugu euskararen presentzia areagotzeko, batez ere kalean, ingurune publikoan, eta gazteei begira; eurentzako dinamikak sortzeko asmoa daukagu.

—Planean ekintza mordoa aurreikusten



Jon Lazkano Kultur Leioan

da, Udalak garatu beharreko asko ere, danak garatuko dira lau urteotan?

—Planak helburuak aipatzen ditu, baina horiek lortzeko ekintzak proposatu ere, baina kontua ez da danak betetzea: helburuak lortzeko ekintzarik eraginkorrenak aukeratu behar ditugu, eremuz eremu. Adibidez, alderdiek proposatuta, konpromisoa hartu dugu Leioako eragileekin talde iraunkorragoa egiteko. Argi dago euskararen sustapena ez dala administrazioa-

ren zeregina soilik: eragile sozialak behar ditugu euskara sustatzeko, eurekin sinergiak sortuz. Gainera, batzuek prozesua abiatzen lagundu zigutela ikusita, aintzat hartuko ditugu taldeari jarraipena emateko eta ekimenak antolatzeke: ea gai garen egutegi bat finkatzeko, haien ideiekin ekintzak antolatzeke. Bagenbiltzan euren lanean, baina ea lortzen dugun horri bultzada berezia ematea, eurei protagonismo handiagoa emate aldera. ○

Txosnetan “non grata”

San Juan jaietako txosna-gunean liskarrak sortutako pertsonen jarrera salatu dute



Akelarrea egiten dute urtero txosna-gunean

Sanjuanek iraun lau gaueetatik hirutan txosna-gunean liskarrak sortu zirela jakinarazi du Maritxu Teilagorri txosna batzordeak, baita gogor salatu ere. Iskanbilan parte hartu zutenak pertsona “non grata” izendatu dituzte eta Leioako txosna-gunean ongi etorriak ez direla adierazi dute. Gainera, antzekorik errepikatuz gero pertsona horien aurka jarrera zorrotzagoa hartuko dutela jakinarazi dute, “portaera horiek dituzten pertsonak eta koadrilak zeintzuk diren zehaztuz”.

Jaiak herriaren nortasuna eta jendarte egitura islatzen dituzte Batzordearen iritziz, eta beste jendarte eredu bat sortzen laguntzen dute. Urteak daramatzate “jai herrikoi, euskaldun, parte-hartzaile eta

parekideak bultzatzen”, eta bide horretan “oztopoak aurkitu eta ezarri” dizkietela adierazi dute.

Baina, horiez gainera, salatu du Leioako jaietan ohitura bilakatu dela txosna gunean iskanbilak sortzea “jende zehatzaren artean, giroa zapuztuz, txosna gunearen irudia kaltetuz eta jai herrikoiaren aldeko lanari erasotuz”. Portaerok, beraz, erasotzat jo ditu, gainera, “instituzioetatik datozenak baino are larriagoak”. Zergatik larriago? Bada, “herrikoiak datozelako”.

Erasoak “jendarte patriarkalaren rolen eta baloreen kopia” direla iritzi dio, eta argi esan du “horrelako jarrerak, baloreak, rolak eta ohiturak” ez datozela bat bultzatzen duten jai ereduagaz. ○

TORRESOLON BIGARREN ETXEBIZITZA PROMOZIOA

Torresoloko Babes Ofizialeko Etxebizitzaren bigarren promozioan izena emon daiteke uztailaren 19ra arte; orainoan 68 etxebizitza zozketatuko dituzte. Horretarako, azken sei urteotan gutxienez hiru urtez Leioan errolatuta egon beharra dago. Kolektibo horri etxebizitza danak esleitzen ez bazaizkie, gainerakoak Leioan lan egiten dutenen artean zozketatuko dira (lanean hiru urtez azken sei urteotan) eta horiei ere danak esleitzen ez bazaizkie, gainerakoak edozeini eskainiko zaizkie. Etxebiden izena emonda egon arren, dokumentazioa aurkeztu behar da Udalean edo Sakoneta kiroldegian.

Info+: www.vpoleioa.com

UDAKO ORDUTEGIA ATERPE GAZTEGUNEAN

Udaran sartu gara eta Aterpe Gaztegunean ordutegiak aldatu dituzte iraila bitartean. Horrela, Gaztegunea astelehenean barikura zabalduko dute, 09:00etatik 14:00etara. Ikasketa gela, barriz, egunero zabalduko dute: astelehenean barikura 09:00etatik 14:00etara, eta zapatu eta domekataran 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Gaztelekua, azkenik, arrastiz zabalduko dute: bariku eta zapatuetan 17:00etatik 22:00etara, eta domekataran 18:00etatik 21:30era; abuztuan, ordea, itxita egongo da Gaztelekua.

Info+: www.leioa.net

CROMATICA PISTONA TALDEA IRABAZLE

Madrilgo Cromatica Pistona taldeak irabazi du Leioako XIII. Pop Rock Lehiaketa. Kategoria horretan irabazteaz gainera sari orokorra ere emon diote. Metal kategorian, barriz, Uribe Kostan geratu da saria; izan ere, Erandioko Unbreath taldeak irabazi du maila horretan. Finalak ekainaren 21an izan ziren, San Juan jaien barruan, Kandelazubieta kiroldegian. Aterpe Gaztegunean antolatzen du lehiaketa.

Info+: www.leioa.net

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guztiak konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaileak, Soinua...
Tf. 94 430 17 81
Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

[erandio]

Joseba Negro > Priscilla Band taldeko pianista eta organista

“Jendeak ikusten du ondo pasatzen dugula eta azkenean kutsatzen da, energia trukutzen dugu”

Funk, soul, disko... doinu dantzagarriak eskaintzen ditu Priscilla Band musika taldeak, edonor mugitzen hasteko modukoak. Euren ikuskizunaz gozatzeko parada egongo da uztailearen 12an, Astrabuduko Josu Murueta plazan.

—Zer da Priscilla Band, zer eskaintzen diezue ikusentzuleei?

—60-70eko urteetan AEBetan uztartu ziren doinu beltzak jotzen ditugu: *funk* doinuak. Kontzertu dantzagarriak dira, edonorentzat: gure musika ez dago mugatuta entzule mota jakin bati. Oso musika erakargarria eta dantzagarria da. Musika beltza bereizten da musika-tresna kopuru handiagoa dagoelako, *beat* musika esaten zaio: bakoitzak bere kolpetxo sartzen du eta perkusioa oso garrantzitsua da. Aspaldi sortutako doinuak dira, baina gaur egun ere freskoak direnak.

—Bederatzi lagun zarete, jai handiagoa dago taula gainean behean baino?

—Jendeak ikusten duenean horren ondo pasatzen dugula, azkenean kutsatzen da. Saltoka hasten dira eta sumatzen da energia trukatzeko hori. Adibidez, aurreko astean umeentzako saioa egin genuen eta eurak ere mugitzen dira musika mota honekin.

—Iaz kaleratu zenuten lehen *Olor a fonk* diskoa, auto-ekoiztia, zer dela eta?



Prisciffunktoria diskoetxeak utzitako argazkia

—Hasteko, Euskal Herrian ez da asko orratu musika mota hau eta, lehen lana izanik, zailagoa da norbaitek argitaratzea. Gauzaren bat begiratzen egon ginen, baina azkenean, geure kabuz atera genuen diskoa. Diskoak saltzeko garaian ez da musika komertziala, baina kontzertuetarako oso erakargarria da eta arrakasta dauka zuzenekoan: horixe da gure abantaila. Gainera, aurretik ere asmoa zen diskoa geure kabuz argitaratzea.

—Eta ordutik kontzertuetan murgilduta

zaudete, bigarren diskoa osatzeko tarterik hartu duzue?

—Bai, egia esan, musikariok azkar asperitzen gara kanta berak jotzearekin eta beti gabiltza gauza barriak egiteko gogoz. Horregatik, azken bi urteetan errepertorioa aldatu dugu; zortzi abesti barri dauzkagu: zenbait kanta kendu eta barri batzuk jotzen hasi gara. Espero dugu 2014rako grabatu ahal izatea. Kontzertuen aldetik ondo joan da eta kanpoan jo dugunean ere diskoa erosi dute entzuleek. ○

Goierri eta Asua jaietan

San Kristobal jaiak izango dira uztailearen 10etik 14ra eta Asuakoak 19tik 21era



Gora Herria taldeak joko du Goierriin, uztailearen 10ean

Uda badoa aurrera apurka eta uztailean auzoko jaiak ospatuko dituzte Goierriin eta Asuan. Lehenak Goierriko San Kristobal izango dira, uztailearen 10etik 14ra, eta Asuakoak gero, 19tik 21era.

Hilaren 10ean (eguaztana) botako dute suziria Goierriin, eguerdiko 13:30ean, mezaren ostean, baina barrikura arte ez da hasiko benetako parranda: arrastian izango da umeen igoera Ibarrik San Kristobalera, txinbera lehiaketa eta dantzaldia, Gora Herria musika taldeagaz.

Zapatuan, barriz, plater-tiroa egingo dute Akarlandan egun osoan, eta soka-tira txapelketa eta erromeria egongo dira, az-

ken hori Garilak 26 taldeagaz. Domekan, hilak 14, amaituko dira jaiak dantzak, bazkaria, asto-probak eta jolasakaz.

Asuan astebete beranduago hasiko dira jaiak. Hilaren 19an, sardina-jana, Taberna Ibiltaria musika taldea eta dantzaldia egongo dira Akerbeltz taldeagaz, baita diskoteka ere. Zapatuan, hilak 20, Apurtuarte futbol taldeko beteranoen partida, jolasak, igel-toka, tortilla eta sukalki lehiaketak, dantza ikuskizuna, Luhartz taldearen erromeria eta diskoteka egongo dira. Amaitzeko, hilaren 21ean, meza, luntxa eta bazkaria egingo dituzte, eta Udal Musika Bandak joko du. Ondo pasa! ○

ZINEMA KALEAN UZTAIL ETA ABUZTUAN

Kostata, baina badirudi berotu duela azkenean; egun aproposak, beraz, kalean egoteko. Horregatik, urtero zinema kalera ateratzen dute Erandion, baita aurten ere. Uztailearen 19an *The wish fish* filma proiektatuko dute Astrabuduko Josu Murueta plazan, 22:00etan. Abuztuaren 2an, barriz, *Marvel, los vengadores* Erandiogoikoako Euskadi plazan. Ohi den legez, sarrera doakoa izango da.

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Ikasturtea amaitu da eta, orain, euskara ikasteko diru-laguntzak eska daitezke, orain hasita, abuztuaren 9ra arte. 2012ko uztailetik 2013ko uztaileara bitartean egindako ikastaroetan parte hartu dutenek eska dezakete laguntza, Euskara Zerbitzuan. Informazio gehiagorako deitu 94 489 0128 zenbakira edo idatzi euskara@erandioko-udala.net helbidera.

Info+: www.erandiokoekuskarazerbitzua.com

BERTSOLARITZAREN LIBURUA ESKURAGARRI

Uribe Kostako bertsolaritza (1900-1980) liburua argitaratu du orain gitxi Labayruk. Fredi Paia bertsolariak idatzi du eta daborduko Erandioko hiru liburudendan eskura daiteke, 10 euroren truke: Altzagako Zubitagari eta Elorduyn, eta Astrabuduko Pemanen. Erandion ere badago zaletasuna, beraz, bota puntue!

ARETOKO DANTZA IKASTAROAK UZTAILEAN

Ikasturtea amaitu da, baina Dance GM aretoko dantzen elkarteak berea luzatu du. Horrela, uztailean lau eguneko ikastaro trinkoak eskainiko ditu, Astrabuduko Sonora aretoan: hilaren 8tik 11ra, tango argentinarra eta lindy hop delakoa; 15etik 18ra, sevillanak (maila ertaina). Saioak 20:30etik 22:00etara izango dira.

Info+: www.dancegm.com eta 679 480 970



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



SOPELAKO KIROLDEGIKO JARDUERAK EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

Sopelako kiroldegiko jarduerak euskaraz eskaintzeko aukera aztertzeko asmoz, Udalak, Aitxu Euskara Taldeak eta Serviociok martxan jarri zuten "Sopelan kirolean ere euskaraz" kanpaina, martxotik aurrera. Orain arte, kiroldegian, umeentzako ekintzetan ez ezik, beste jardueretan ere ez da euskararako tokirik egon. Apirillean herriko kiroldegian eskuragarri egon den inkestako parte hartzaileen %80k nahiago izan duenez ikastaroak euskaraz egin, erabaki da euskarazko eskaintza honako jardueretan egitea: Zikloa, Pilates eta Bizkarreko Tonifikazioa ikastaroetan. Kanpaina honetan hainbat dira kolaboratu dutenak: Aitxu Euskara Taldea, Serviocio, Sopelako Udala, Foto Xabier Denda... baita proiektua aurrera eramaten lagundu duten herriko kirolari eta kiroldegiko begiraleak ere. Hortaz, hortxa aukera ederra kirolean ere euskaraz aritzeko!

UDAN ERE BURDIN HESIA ETA MUNARRIKOLANDA EZAGUTZEKO BISITA GIDATUAK

Uztailean ere aukera izango da bisita gidatuetan parte hartzeko. Hala, interesatuek aukera izango dute uztailearen 13an eta 28an Munarrikolanda ingurura abiatzeko, Urko kiroldegiko aparkalekutik abiatuta, goizeko 10:00etan. Bertaratutakoek 3 euro ordaindu beharko dituzte. Abuztuan ere eskaintzak indarrean jarraituko du; hala, hilaren 24an, Sopelako labarrak ezagutzeko bisitak egongo dira, 11:30ean, Turismo bulegotik abiatuta. Horrez gainera, udan zehar ere umeentzako Geologia tailerrak antolatuko dira: abuztuaren 10ean eta irailaren 22an, 11:00etatik 14:00etara, Arriatera hondartzan. "Dinosaurioen aztarnen bila" haurrentzako Geologia tailerrek 3 euroko prezioa izango dute. Beraz, uda osoan izango da burdin hesia eta munarrikolanda ezagutzeko aukera paregabea!

Info+: turismo@sopelana.net

Jaietan, lotu barik!

Sanpedroak igaro ostean, **Karmengo jaiak** hamaika ekitaldigaz heldu dira



Ekitaldi guztiak: www.sopelakojaiak.blogspot.com web-orrialdean

Udako jai-zurrumbiloan sartu barri gara, eta antza, honek ez dauka gelditzerik; *sanpedroak* igaro, eta hauek Karmengo jaiak bide emongo diete. Hala, hilaren 12an, barikua, jaiak ondo etorria emoteko, arrastiko 20:30ean botako dute txupina eta pregoi-irakurketa egingo dute Peñatxuriko surflariak; ostean, On eta Mandoile taldeek joko dute 23:00etan Urgitxietan plazan. Zapatu goizean, barriz, kadete mailako txirrindularien lasterketa izango da Larrabasterran. Egurdiko 12:00etan, skate ikastaroa eskainiko da Urgitxietan plazan eta 14:00etan,

herri-bazkaria txosna-gunean. Iluntzeko 20:00etan, ordea, Karaokea Iberrota plazan, eta eguna amaitzeko, 23:00etan Governors, Mamba Beat eta Honat taldeen kontzertua Urgitxietan. Domekan, goizeko 10:00etatik aurrera marmitako lehiaketa egongo da Urkon. Egurdi eta arratsalde aldean, herri-kirolean parte hartu ahal izango da. 20:00etan mariaxiak ibiliko dira kalejiran Urgitxietatik abiatuta; eguna bukatzeko, Selfshot eta Obrint Pass taldeak arituko dira. Asteburua igarota, jaiak hilaren 16ra arte iraungo dute atseden barik! o

Haizea Lopez > eleberrigile gaztea

"Datorren urtean beste eleberri bat kaleratzeko asmoa daukat"



Proveglia, la isla del no retorno liburua salgai dago liburudendetan

Hogei urte baino ez dauka Haizea Lopez idazle sopeloztarrak. Adina, berriz, ez du oztopo izan; daborduko, bere bigarren eleberria kaleratu barri du: *Proveglia, la isla del no retorno*, horrez gain, sei narrazio antologiatan hartu du parte. Zalantza barik, Lopez indarragaz murgildu da literatura munduan.

—Zeintzuk dira lehenengo eta bigarren eleberrien arteko alde nagusiak?

—Adin tarte ezberdineko irakurleentzat dira; lehenengo eleberria irakurle gazte txoei bideratuta dago; bigarrena, barriz, irakurle nagusiagoentzat da. Izan ere, eleberri barriaren gaia konplexuagoa da, gogorragoa. Horrez gainera, dokumentazio lan handia egin behar izan dut eleberria egiteko; legenda batean oinarrituta dago. Hala, horri buruzko informazioa lortzeko, liburu asko irakurri behar izan ditut, pelikulak ikusi, elkarrizketak egin... Horrenbestez, lehenengo eleberriaren datu guztiak fikziozkoak baziren, nik neuk sortutakoak, oraingoan ez,

benetako datu historikoak ageri dira.

—Zertan datza *Proveglia, la isla del no retorno* lana?

—Misteriozko eleberria da; izurri beltzari buruzkoa da, Italian kokatua Errenazimentu garaian. Esan bezala, legenda batean oinarrituta dago. Horrela, mendeetan barrena gertatutako hainbat istorio ardatz baten inguruan batu gura izan ditut. Istorio guztiek bat egiten dute.

«Zorte handia izan dut nire hastapen literarioan; oso pozik nago»

—Literatura krisian dagoen arren...

—Egia esan, zorte handia izan dut. Literatura munduan hasiera ona izan dut. Lehiaketa askotan hautatu naute... Badira idazle asko, urteak daramatzatenak, ez dutenak lortu libururik argitaratzea.

—Etorkizunean, beste proiekturik?

—Datorren urtean beste libururen bat kaleratu nahi dut, momentu honetan seigarren eleberria idazten ari naiz. o



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.



Gosariak, Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!

Bentabatu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Jaiak Udalaren esku

Orain dela urte bi, Berangoko zenbait auzokide batu eta **Kukullagako Jai Batzordea** sortu zuten; **ordutik, Santa Anako eta Santo Domingoko** jaiak antolatzen ibili dira

Berangoko Kukullaga Jai Batzordea bi urtez aritu da jaiak antolatzen; aurtengoa, ordea, Udalak jaien antolaketaz arduratzea erabaki du; hainbat dira Udalak hori egiteko argudiatzen dituenak. Hala, batzuen zein besteenak jasotzeko, eurei zuzenean galdetu diegu.

“**Arrazoi** nabiko daukagu jaiak Udalaren esku uzteko; izan ere, jai batzordeak ez du zenbait baldintza bete”. Horrela erantzun du Anabel Landak, Berangoko alkateak, jaiak Jai Batzordearen esku ez uzteko arrazoiengatik. Arrazoiak ere, eman eman ditu Landak: “Lehenengo eta behin, 2012ko jaiak antolatzeko, Udalak eman zuen diru-laguntza justifikatzeko dokumentuak epea kanpo aurkeztu zituen jai-batzordeak; bigarrenik, justifikatzeko aurkeztutako agiriak ez zuten jasotako diru-laguntza osoa justifikatu; eta azken arrazoia, zalantza barik, argudiorik indartsuena da; izan ere, elkarte horrek zorrak dauzka jaiak egiteko kontratatutako enpresa batzuek. Beraz, aurtengoa ezin ditugu jaiak elkarte horren esku utzi”.

Anabel Landagaz berba egiteaz gain, Kukullaga Jai Batzordeko kideei ere galdetu diegu aurtengoa jaien antolatuak ez izateko arrazoiei buruz: “Aurtengoa, orain arte izandako esperientzia faltagatik, askotan ez zaizkigu gauzak nahi bezala ateratu, eta akatsak ere egin ditugu; azken hauek une oro gure gain hartu eta konpontzen saiatu gara”. Jai Batzordeko kideek egindako akatsak onartzeaz gain, honakoa gehitu dute:



Santo Domingo eta Santa Anako jaiak uztailean zehar izango dira

“Akatsak zuzendu edota alternatibak bilatu eta aurkitu ditugun arren, agerian geratu da Udaleko arduradun politikoek ez dutela inolako borondatek herriak sortutako edozein ekimen babesteko. Horregatik, aurtengoa, berangoztarrei ez digute inolako aukerarik emongo jaien antolaketan parte hartzeko.”

“Batzordearen ustez jaiak oso ezberdinak izango dira; Udalaren ustez, berriz, jaiak berdin izango dira”

Parte hartzeari buruz ere aritu da Landa, bere esanetan “Udalak jaiak antolatuko ditu kultur eta kirol talde batzuen laguntzagaz batera; nahi duenak lagunduko du; jaiak egiteko gogoak daukan orok laguntzeko aukera izango du”.

Jai Batzordeko kideek aurtengoa jaiak nolakoak izango diren aurreikusitakoak dira: “Aurtengoa jaiak ezberdinak izango dira, jai ereduak bestelakoa delako; aurtengoa ez dira berangoztarrenak. Berangoztarren izararen anaberako egitaraua osatu dugu azken bi urteetan; aurtengoa, berriz... Nola jakin dezake enpresa pribatu batek herri bakoitzeko auzokideek ze jai mota nahi izango duten, bertako errealitatea ezagutu gabe?”

Halere, Berangoko alkatearen hitzetan, “Jaiak eskaintza zabala izango dute, batzordea ez egoteak ez du eraginik izango jaietan”. Batzordekideek, bestalde, oso argi daukate euren egitekoak: “Gure erronka jaiak berreskuratzea da, horretarako gorabehera guztiak gaindituko ditugu. Hala, jai herrikoien alde egingo dugu uztailearen 20an antolatutako jaiagunean”. ○

Armintzako jai batzordea > jai herrikoiak sortzen

“Herriar guztien artean egindako jaiak dira Armintzakoak”



Uztailaren 11tik 16ra hamaika ekimen antolatu dute armintzarrentzat

Urteak daramatza Armintzako jai batzordeak herriko jaiak antolatzen, eta eurrera eramaten. Daborduko, prest dute uztailearen 11tik 16ra ospatuko dituzten Karmengo jaien egitaraua zabala.

—**Ekimen berezirik aurtengoa jaietan?**

—*Txapel Reggae* aparte, triatloia adibidez; urtero taldeak, planteamendua edo ibilbidea barrizten ditugu. Talde mistoak egiten saiatzen gara denok parte hartzeko: ume, emakume eta gizonen artekoak. Emakume gehiagok parte hartzea gustatuko litzaziguke. Barikua mozorro eguna da, herri osoak parte hartzen du. Gauean, barriz, pala jokalaritza profesionalen partidua. Zapatuan *Txapel Reggae*-rako berotzeko, poteoa eta batukada daude; horrez gain, umeentzako jolasak eta *playback*. Karmen egun handia da eta herri osoak parte hartzen du. Guztiontzako zerbait egiten saiatzen gara.

—**Zelakoa da herritarren erantzuna, herriak aktiboki parte hartzen du?**

—Txosna bakarra dugu, jai batzordeare-

na, eta herri osoa pasatzen da handik txanda egitera; herriar guztien artean egindako jaiak dira. Mozorro Eguna egunik borobilena izaten da; herriko jentuek eta taberneek parte hartzen dute mozorro oso landuakaz, gehien gozatzen dugun eguna da, egunik herrikoena.

«90eko hamarkadan Txapel Reggae Europako jaialdi ezagunenetakoa zen»

—*Txapel Reggae*ren balorazioa erabat positiboa izango da...

—90eko hamarkadan Europako jaialdi ospetsuena izan zen. Orduan batzordea lanez gainezka egon zen, eta azkenean jaialdia bertan behera geratu zen. 2003an barriro hasi zen, eta azken urteotan barriro ospea irabazten hasi da.

—**Zailtasunik jaiak antolatzean?**

—Zailtasun nagusia diru falta da, oso zaila da laguntza ekonomikoa lortzea. Halere, orain arte dena ondo ateratu zaigu, baina jai herrikoiak nahi baditugu parte hartu eta dirua inbertitu behar da. ○

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regarizar@euskalnet.net
www.garizar.biz
Illeta kalea 1 • ALGORTA

OSTA BIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harrizko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

III. ARTISAU AZOKA INDEPENDIENTEA PLENTZIAN

Plentzian III. artisa azoka independentea egingo da uztailaren 21 eta 22an, Astillero plazan, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00etara. Hala, bertaratzen direnek aukera izango dute inguruko ekoizle artisauen lanak ikusi eta erosteko.

GORLIZEN, HAINBAT KULTUR JARDUERA UDA OSOAN ZEHAR

Jaiak ez ezik, badira beste hamaika ekimen ere horiekaz gozatzeko. Besteak beste, uztailaren 11tik 20ra Gorlizko erakustaretoan, arrastiko 19:00etatik 20:00etara, Anton Uriarte eta German Gomez Tejedorren egurrezko eta beirazko taila izango da ikusgai. Horrez gain, hilaren 19an Sertutxena aretoan, arrastiko 19:00etan, txakolinaren gela egongo da; bertaratzeko aukera izango dute kultur etxean izena ematen dutenek, lekuen kopurua mugatua da.

OSPITALERAKO BIDEA HOBETZEKO HITZARMENA

Gorlizko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiagaz adostu barri du Gorlizko ospitalerako bidea hobetzeko hitzarmena. Izan ere, askoren ustez, bidea ez da batera segurua, eta azken urteetan istripuak izan dira bertan. Hala, Foru Aldundiak bere gain hartuko du lanen kostua; Udalak, barriz, horren mantentze-lanak.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Gorliz

Heldu dira Santiago jaiak Gorlizera, bost egunez herria alaitzera!



Uztailaren 24tik 28ra jarduera ugarigaz gozatzeko aukera izango da

Urtero legez, aurten ere uzta bukaeran Santiago jaiak helduko dira. Eta oraingoan, jaiak bost egunez luzatuko dira. Uztailaren 24an, asteazkena, gorliztarrek hasiera emongo diete jaiari; hala, eguerdian, 14:00etan, elektrotzaranga kaleak alaitzen ibiliko da herrian zehar; ostean, 15:00etan, herri bazkaria egingo da. Behin jaietako giroa berotuta, arratsaldean, 19:45ean, pregoia irakurri eta txupina botako dute Eliz plazan. 20:00etan, barriz, koadrilen jaitziera nagusia abiatuko da Itsasbide eta Eloisa Artaza kaleetatik. Ostegunean, uztailak 25, Santiago eguna, nekazaritza azoka egongo da, 10:30etik aurrera eta goiz osoan zehar, Artzelu plazan. 13:00etan, barriz, trikitalariek eguna alaituko dute; horrela, jendeari baserritarrez janzteko gonbitea egin diote. Arratsaldean, kupela ibiltaria egongo da eta 19:30ean umeentzako bigantxak, fanfarriagaz batera. Gaueko 23:30ean Pensilvania taldeak joko du

Eliz plazan. Barikua umeentzako jarduerak hasiko da; izan ere, umeentzako parkea egongo da Ibarretan goiz osoan. Eguerdian, jubilatuentzako luntxa izango da Nagusien etxean. Egun akabuan, 21:30ean Nazioarteko folk jaialdia egongo da Ibarretan; horrez gain, 23:00etan

“Hilaren 28an bertso-saioa eskainiko dute Jone Uriak, Itxaso Paiak, Unai Iturriagak eta Amets Arzallusek”

Kop eta Itziarren Semeak taldeek joko dute Eliz plazan. Zapatuan, ordea, goizean goiz, 9:00etan, XXXV. Makailao Txapelketa egingo da eta kazolen aurkezpena 13:30ean da. Iluntzean, 20:00etan, bigantxak fanfarriagaz; eta 22:30ean, eguna amaitzeko, XIX. Habanera eta Euskal Polifonia Jaialdia egongo da Ibarreta plazan. Domekan, 20:30ean, jaiari agur esateko bertso saioa antolatu dute, Eliz Plazan. o

Uzt. 8 - Uzt. 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Andra Mariko nagusien etxeko tailerrak.** Uztailaren 12a arte. Algortako kultur etxean.
► **Getxo&Blues.** Uztailaren 19a arte. Algortako kultur etxean.
► **Politiko-poetikoa.** Uztailaren 28a arte. Algortako Torrene aretoan.

GORLIZ

► **Anton Uriarte eta German Gomez-Tejedorren lanak.** Uztailaren 11tik 20ra. Erakustaretoan.
► **Gonzalo Gutierrez Gomezen lanak.** Uztailaren 21etik aurrera. Erakustaretoan.

PLENTZIA

► **Guillermo Ortegaren margolanak.** Uztailaren 15era arte. Gofi Portalen.
► **Keltse Maciasen margolanak.** Uztailaren 16tik 30era. Gofi Portalen.

ANTZERKIA

GETXO

► **Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Sentitu, pentsatu, ekin!** Uztailaren 13an, 16:30ean eta 19:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. 7 euro.
► **Ellas bailan solas (Pikor Teatro).** Uztailaren 20an, 20:00etan. Romoko Santa Eugenia plazan.

MUSIKA

PLENTZIA

► **Kantagune elkarte.** Uztailaren 12an, 19:00etan. Kristo elizan.

ERANDIO

► **Priscila Funky Band.** Uztailak 12,

Kanadako Mackinaw taldeak jaialdi bietan dantzatu du

► **Dantza**

Folklore jaialdiak Erandion eta Getxon

Nazioarteko Folklore Jaialdi bi izango ditugu eskualdean datozen egunetan: bata Getxon, bestea Erandion. Getxokoa uztailaren 21etik 23ra izango da, Algortako Biotz Alai plazan, 21:00etan eta dohainik. 21ean Algortako Itxartu taldeak dantzatu du, 22an Kanadako Mackinaw taldeak eta 23an Turkiako Gökmeýdan Halkoyunlari G.S.K.D. Kanadarrek, gainera, ikuskizuna eskainiko dute Erandion uztailaren 23an. Altzagako kirolegian izango da jaialdi hori, 19:30etik aurrera eta dohainik: Mackinaw taldeagaz batera, Erandiogoikoako Goi Alde dantza taldea igoko da taulara. Ibilbide luzeko jaialdiak dira biak eta laster 30 urte beteko dituzte.

• **Noiz:** Getxon, uztailaren 21etik 23ra eta Erandion, 23an

21:00. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Dohainik.

GORLIZ

► **Lirain Abesbatza eta Xabi Aburruzaga trikitilaria.** Uztailaren 13an, 20:00etan. Elizan.

GETXO

► **Nazioarteko Blues Jaialdia.** Uztailaren 18tik 20ra, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. 6 euro.
► **Los Brazos.** Uztailak 20, 23:00. Algortako The Piper's Irish Puben.

LEMOIZ

► **Txapel Reggae.** Uztailak 13. Armintzako portuan. Doakoa.

ZINEMA

GETXO

► **Gaurik laburrena.** Uztailaren 8an gaztelaniaz eta 9an euskaraz, 21:00etan. Algortako Biotz Alai plazan. Doakoa.

ERANDIO

► **The wish fish.** Uztailak 19, 22:00. Astrabuduko Josu Murueta plazan. Dohainik.

GORLIZ

► **Lo impossible.** Uztailak 20, 22:30. Pilotalekuan.

BESTEAK

GETXO

► **Letren terrazak.** Uztailaren 30era arte, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:30era. Neguriko Gernika parkean, Algortako Iturgitxi plazan eta Andra Mariko Sarri plazan.

► **Bertso Saio Mundiala.** Uztailak 10, 21:00. Algortako Biotz Alai plazan. Dohainik.

ERANDIO

► **Jolastu Txiki progama.** Uztailak 11, 17:00. Altzagako Irailaren 23a plazan.

► **Plater-tiroak.** Uztailaren 13an, Akarlandako zabortegian.

► **Olgetan Solas programa.** Uztailaren 14an Goierriin, 18:00etan; eta 20an Asuan, 11:30ean.

GORLIZ

► **Txakolinaren Gela.** Uztailak 19, 17:00. Sertutxenan.

► **Itsasargirako bisita gidatua.** Uztailak 21, 11:00. Gorlizko Badia ibiltokian. 5 euro.

PLENTZIA

► **Eskuz egindako artisautza lanen eta diseinuen III. azoka independentea.** Uztailaren 20 eta 21ean, 11:00etatik 20:00etara. Astilleron.

SOPELA

► **Santa Marina jaia.** Uztailaren 20an, egun osoan. Santa Marinako baselizan.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Egurragaz jolasten

Sopelako jaietan hamaika ekimen izan ziren danok gozatu eta ondo pasatzeko. Horietako bat irudiotan ikus dezakezuen da: egurrezko jolasak. Europako hainbat herrialdeetatik Sopelako plazara jolas mota andana ekarri zituzten, danak zurezkoak. Eta hor ibili ziren teknologia barrien belaunaldiko haurrak, orain dela hamarkada batzuetan legez olgetan. Izan ere, jolasek ez daukate iraungitze-datarik, hara, frog!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Portaleña Hotela

Gorniz, 1920

Asko aldatu da Portalenaren itxura, baina zabalik dirau oraindino, Gornizko udaletxearen alboan. Hotela ei zen hasierako eraikina desagertu egin zen, eta gaur egun lau solairuko etxean kokatzen da taberna; baina orain dela ia ehun urte argazki honetan ageri den bezalako zen, baserri itxurakoa. Irudi hau oso ezaguna da eta tabernako horman bertan badaukate zintzilik. Gitxitan ikus daitezke garai hartako autoak eta hemen matrikula eta guzti ageri dira, argi eta garbi; sidekar erako motorra bat ere ikusten da, ondo fijatuz gero. Dendak ixten ari diren garai honetan polita da ikustea, urteen joanari aurre eginez, zabalik mantentzen dela Portaleña.

[berbetan]

Jose Allende Landa (Bilbao, 1943) Ekonomia Aplikatuen katedraduna da, hain zuzen Hiri eta Eskualdeko Plangintzan. EHUko irakasle getxotarra London School of Economics and Political Science-eko Plangintza ikasketetan zientzia-masterraduna da, Pennsilvaniako Unibertsitateko Urban and Regional Planning masterra ere badu. Hamaika artikulua eta liburu argitaratu ditu, oro har hurrengo gaien inguruan: energia eta nuklearren gaineko politikak, ekologia eta lurraldea, metropoli-guneen hirigintza-plangintzak eta ingurumena, iraunkortasuna, industri-hondakinak, ingurumen politikak e.a. Allende Euskal Kostalde EZ Nuklearra-ko defentsa-batzordeko kide-koordinatzaile izan zen, eta berea da *La alternativa nuclear después de Fukushima* liburua.

Jose Allende

Hirigintza baino gehiago jokoan

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Urbe Kostako hainbat udalerri (oro har: Urduliz, Sopela eta Getxo) Hiri-Antolamendurako Plan Nagusiak (HAPN) berrikusten dabilta. Aurrera begiratu baino lehenago, momentu honetan zelan ikusten duzu eskualdea?

—Urbe Kosta eskualdeak bere lurralderako propio eduki beharko luke antolamendu plana, eta ez luke sartuta egon behar, beste eskualde batzuek batera, Bilbao Metropoliko “eremu funtzionala” edo “eskualde egitura” deritzon horretan. Bilbao Metropolia metropolialde handia da, eta berezko gidalerroak edo jarraibide propioak eduki beharko lituzke, ez 2006an onartutako Lurralde Plan Partziala (LPP; edo Lurralde Zati-Plana, LZP; gaztelerazko PTP) bezalako bat, bere baitan 35 udalerri hartzen dituena. Aldundiak ez luke definitu, mugarritu edo baldintzatu behar 35 udalerrion etorkizuneko hirigintza zein udalgintza. Ez da zentzuzkoa Bilbao Metropoliko LZPak, ezkutuan eta maltzurki, Getxori dagozkion eskumen eta erabakiak bere egitea, kontuan hartu barik, gainera, Euskal

Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko 4/1990 Legeak (ikus. 12. Artikulua) jasotzen dituen ebazpenak. Izan ere, bertan hurrengo adierazten da: “erabakien edo ebazpenen adierazpenak, edo zelan ere, Tokiko Erakundeek bermatzen zaiezkie eskumen-esparrua errespetatuz egingo da”.

—Herritar arrunta galdu egiten da hainbeste laburdura artean, besteak beste, LAG direla, LZPa dela edo HAPNa eta abar. Horien esangura ez du


degoko (EAE) lurralde-antolamendurako ildo nagusiak (erreferentziako esparrua) adierazten dituzte; hau da, horiek dira maila gorena. Gero, LZPek edo LPPEk eskualde mailako kontuak jasotzen dituzte (“eskualde egitura edo eremu funtzionala” delakoa), eta euren egitekoa da eremu horietan LAGen funtzioak eta zehaztapenak garatzea; horrenbestez, udalaz gaineko antolamendu-tresnak dira. Azkenik, HAPN udal eskumeneko tresna da erabat (“egiturari dagokionez”), eta uda-

“Urbe Kostak berarentzat propio, eskualde honetarako propio, beharko luke lurralde antolamendu plana”

ezagutzen, esta plangintza horien edukia, ondorioak eta abar ere ez. Labur, azal diezagukezu zer diren, zein harreman duten euren artean eta zein eragin/ondorio izan dezaketen herritarrengan?

—Batetik, Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (LAG; gazteleraz DOT) daude, horiek Euskal Autonomia Erki-

lerrian LZPren ebazpenak zehaztasun handiagoz garatzen ditu; bestelako eskumen propioez gainera, udalerriko lurzoria kalifikatzen eta sailkatzen du esate baterako. Beraz, aipatu ditugun plan edo tresna horien artean herarkia dago (Gobernua-Aldundia-Udala). Hirurek dute izaera politikoa, beraz, hirurek informa-



tze, egiazatze, eztabaidatze, eta azken batean, parte-hartze publiko sakona eta eten bakoa eskatzen dute, batez ere HAPNak. —Kontuok eragin zuzena dute herritarrengan, eta etorkizuneko belaunaldien gain ere bai. Zure iritziz, hirigintzako termino teknikoak apropos erabiltzen dituzte herritarrek arlo honetako eztabaidetan parte har ez dezaten? Kontu hauek herritarren parte hartzeak daukan garrantzia zelan nabarmen daiteke?

—Horixe da, izan ere lurralde- zein hiri-antolamendua hirigintzako termino tekniko konplexuak nahastu gura dute, zerbait tekniko balitz bezala... eta ez da hala; funtsean eginkizun politikoa da, herritar arduratsu batentzat hurbileko kontua da, eta ulergarria. Zentzu horretan, esan behar dut Bilbao Metropoliko LZPa dokumentu nahasgarria dela, eta nahita egin dutela hala; are gehiago, udal autonomiarekiko sekulako eraso zuzena da, horixe da larriena. Horrez gainera, LZPa egiten hasi eta onartu zuteneko (1998-2006) zortzi urte pasa ziren! Hori eta gaur egun, 2013 honetan, 2007an hasitako kritikatik gaurdaino bizi dugun egoera kontuan hartuz gero, egiten dituen aurreikuspen eta iragarpenei dagokienez zaharkituta, defasatuta eta testuingurutik kanpo dago. Horren albotik, benetan eta modu eraginkorrean HAPNen berriskupenean parte hartzeak berebiziko garrantzia du, daborduko interes ahalguztidunak martxan daudelako, eta horiek hurrengo norabidea hartzen dabilzalako: “gero eta handiago...”, “hazkundera... eraikitzea eta kontratazioa...”, “eraikitzeke lurzoru-eremu gehiago...”, “hiritartu behar...” e.a. Hori Getxorako arrisku izugarria da, dagoeneko lurzoru libre oso gitxi dauka-eta!

—Getxoko HAPNa berridatzi duen taldearen aurkezpen-saioetan izan zara. Berrikuspen prozesuan dagoen HAPN barri hori hurrengo zortzi urtetan indarrean egongo da. Horren kritika egiten duen iritzi-artikuluak plazaratu duzu, Planari kritika ezkorrek egiten dizkiozu.

Zertan oinarritu zara? Horretarako zer arrazoi eskaintzen duzu?

—LZPa egin gura dute datorkigun bidegabekeriaren erantzule, eta hori ez zait zuzena iruditzen. Lehenengo eta behin, Getxoko 2001eko HAPNa kritikoki baloratu beharko litzateke. Izan ere, Plan hark, beste hainbat zentzugabekeriaren artean, 2.500.000 metro koadro (25 hektarea)

“LZPa egiten hasi eta amaitu arte 8 urte joan ziren, eta gaurko krisi egoera kontuan hartuta... zaharkituta dago”

barri sailkatu baitzuen lurzoru urbanizagarritzat. Gero, 2006ko Bilbao Metropoliko LZPa guztiz ezeztatu edo indargabetu beharko litzateke; gaur egungo testuinguru eta egoera sozio-ekonomikoan, egiturazko krisiak, sistema-krisiak eta abarrek jota gauden honetan, ez daukalako zentzurik, lekuz eta garaiz kanpo dagoelako. Azkenik, premia larriz berrikusi beharko lirateke 1997ko LAG. Eta hala egokituko balitz LZP barriak landu beharko lirateke, gehienez 2-3 urtetan egin beharko litzateke; era berean, udal-plangintzak berrikusi beharko lirateke. Hori guztia egin beharko litzateke garai barrietara egokituta, onbideratutako hirigintza jasangarri edo irakunkorreko irizpideak jarraituz, ingurumenari errespetua eta sentibititatea adierazita, arlo sozialean bidezkoak izanda

“Arrazoiak badira Getxoko HAPNak neurri barik urbanizagarritzat jotako hainbat eremu sailkapenetik kentzeko”

eta etikoki ustelkeriaren “higiezin boometik” oso urrun eta “pelotazotik”... hiria “gero eta gehiago, eta handiago” egitetik zein eraikitzetik aldentuta e.a.

—Horren albotik, hazkundera, garapena, etxebizitza gehiago behar direla eskatzen dela, horretarako lurzoru gehiago jo behar dela urbanizagarritzat edo erai-

kigarritzat eta beste hamaika kontu helurtzen zaizkigu belarrietara. Bestetik, Uribe Kostan gero eta natur-eremu gitxiago dago, horiek izan arren gure inguru honetako alderik erakargarriena. Lehenengo aipatu ditugunak eta azken hori bateragarriak dira? Zer proposatuko zenute zuk? —Nire ustez Getxo dagoeneko bidezkoztat edo zentzuzkotzat jo daitekeen bere

hazkunde-atarira heldu da, eta bere harre-ra gaitasuna agortu du. Hori bai orain dugun udalerrri hain atsegina, anitza eta gizatiarra, gizon-emakumezkoei begirakoa izaten jarraitu gura badugu noski! Neure iritziz, Getxo behar bezain finkatuta eta bateratu dago, horregatik uste dut urbanizatzeko ez dela metro koadro bat bera ere bideratu behar. Are gehiago, nire aburuz, arrazoi sendoak daude 2001eko HAPNak neurririk gabe urbanizagarritzat jotako hainbat lurzoru sailkapen edo izendapen horretatik ateratzeko; hau da, beste modu batera esanda, aurreko HAPNak urbanizagarri edo eraikigarri izendatu eta klasifikatu zuen lur-eremu zabalegitik kopuru bat kentzeko arrazoiak egon badaudela uste dut. Ezin dugu, datozen 10 urteetan, gure udalerriko natura-kapitala edo natu-

ra-ondasuna agortu; ezin dugu oraindino dugun lurzoru-eremu libre eskasa agortu. A zelako bidegabekeria litzateke hori egitea! Geroko belaunaldiekiko arduragabe jokatzeko litzateke! Geroko belaunaldien ongizatea jokoan ipintzea axolagabekeria hutsa litzateke, are gehiago, inori mesede egiten ez dion jarrera egoista da hori,

defendaezina eta jasangaitza nire iritziz. —Gai honi lotuta, Tokiko Agenda 21 ekintza-planaren gainean ere berba egin liteke, hau da, Tokiko Agenda 21 horiek ere lotura dute berbetako gaiagaz. Horietaz jardutean, iraunkortasuna, jasangarritasuna, hiri-eredu iraunkorra eta halakoa aipatzen dira. Gure inguruotan, horiei kasu egiten zaie? Irizpideak betetzen dira?

“LZPak Getxorako nahi duena, HAPNagaz egin asmo dutena oso urrun dago iraunkortasun-irizpide barrietatik”

—Erakusten den udalerrirako plangintza, Bilbao Metropoliko LZP zaharkituarekiko inolako gaitasun loteslerik ez daukana, inola ere ez dator bat hiri antolamenduari legezko iraunkortasun irizpideakaz. “Garapen iraunkorra. Tokiko Agenda 21 ekintza planeko kudeatzaile” graduondoko ikastaroa zuzentzen dut orain dela 9 urtetik, eta irmoki baieztatu dezaket Bilbao Metropoliko LZPak Getxorako nahi eta proposatzen duena eta Getxoko 2001eko HAPNaren berrikuspenagaz ustez egin

gura dutena oso urrun dagoela hiri-udalerritarako iraunkortasun irizpide barrietatik. Eta, egia esan, oso erraza litzateke. Egin beharko luketena hauxe da: gai honen inguruan Eusko Jaurlaritzak egindako txosten baliotsuetan jasotako aginduak jarraitu eta inplementatu. Horien artean aipagarriak dira ondorengoak: lehenengo, “Hirien plangintzan aplikatu beharreko

jasangarritasun-irizpideak” IHOBek eta Udalsareak 2003an kaleratuta zutena; bigarrenik, “Jasangarritasun-irizpideak kontuan hartuta Hiri-plangintzak idazteko gida” EUDELe eta IHOBek 2005ean argitaratu zutena. Egundoko dokumentuak edo txostenak dira, eta gainera, Eusko Jaurlaritzak berak egindakoak. Ostera, emoten du erredaktore-taldeari eta Udalari dokumentu horiek bost axola dietela. —Honetan aditu izanik, sarri esan duzu hirigintzaren eredu edo ikusmolde garai-

kide barria bestelako norabide eta ildo batzuetatik dabilela. Zer proposatzen du? Horren adibiderik?

—Hiri-hazkunde zoroa sustatzen zuen hirigintza behin betiko amaitu da; hiria egitea, gero eta handiagoa, are hiriagoa, eraikuntza eta kontratuen hirigintza, jarraitzea “hiria egiten... fisikoki”, hori dana ahaztu! Akabo! Gaur egun dagoeneko hiriaren eta lurraldearen ikuspegi integrala eta dimentsioaniztuna erabiltzen da; hiri-landa tandemaren ikuskera barria dago; birgaitzea eta zaharbarritzea hobesten da hedatze fisiko eutsiezina baino; hiriguneak berregituratzea, biziberritzea, birmoldaketa zein berrestrukturazioa lehenesten dira; ingurune fisikoa eta natura-ingurunea babestea eta berreskuratzea aldeztzen da; espekulazioaren eta etenik bako hazkunderaren aurretik jartzea hirietako bizi-kalitatea...

Izan ere, fisikoa den edozer ezin haz daiteke muga barik, fisikoa mugatua da. Eta Getxok gero eta lurzoru-eremu libre, natural, oraindino artifizializatu bako gitxiago dauka... Zer dela eta apur hori ere agortu hurrengo 20 urteetan? ○

Zenbait kontzeptu argitzeko azalpenak:

LAG (Lurralde-Antolamendurako Gidalerroak)

Jaurlaritzak azaldu legez: “Etorkizuneko oinarritzko jarduketarako ezartzen dituzte hainbat arlotan: ingurugiroa, natur baliabideak, paisajea, hiri-, industria- eta landa-espazioak, azpiegiturak eta ekipamenduetan (...) EAE tajuz eta koordinazio egokiz garatzeko oinarria dira, interkonexio eta integrazio irizpideetan oinarritzen dira; Lurraldeko planak eta udal planak elkarrekin zerikusirik izan gabe landu ez daitezkeen, inguruko edo Erkidegoko beste lurraldeen aurkako planik egin ez dadin e.a.

LPP edo LZP (Lurralde Plan Partziala; Lurralde Zati-Plana)

LAGek jarduera espezifikoa ezartzen dituzte LZPentzat. Hauetako eskualde egitura dute, beren eremu funtzionala “eskualeak” dira, eta euren egiteko da eremu horietan LAGen funtzioak eta zehaztapenak garatzea.

Bilbao Metropoliko aplikazio-eremua: Bilbo, Ezkerraldea, Meatzaldea, Hego Uribe, Txorierrri eta Uribe Kosta.

HAPN (Hirigintza-Antolamendurako Plan Nagusia)

Plan hauek egitea udalen eskumena da, eta herritarren parte hartzea zabalik daude. Udalerririk hurrengo urteetan izango duen bilakaeraren gaineko baldintza eta egitasmo danak jasotzen dira. Udalerririk hiriaren eta hiritarren beharrak zeintzuk diren aztertzen, egunerokoan erabiltzen ditugun azpiegiturak, etxebizitzak eta ekipamenduak hartuko dituzten lurzoruak horretarako sailkatzen dira (urbanizagarritzat jotzen e.a.). Epe luze batean definitzen da zelan eta zertarako erabiliko den lurzorua. Hala, udalerririk lurzoruak hiritar, urbanizagarri edo urbanizaezin kategorietan sailkatzen dira etab. Lurzoru hiritarren eta urbanizagarrien zenbatekoa den gehienezko eraikigarritasuna adierazten du, zein hornidura behar diren, eta urbanizaezina den lurzoruari zein erabilera emon dakiokeen zehazten ditu, betiere lurzoru horiek babestuen egoteko asmoz. Berrizatzeko dauden eremuak ere zehazten ditu eta egiten diren obretarako baimena emateko baldintzak ere bai.



Txinako lur-bazterrak

Martxoan, Hodei Torres argazkilaria Txina hegoaldera abiatu zen. Lurralde zabala da Txina eta hori dela eta, oso-osorik ezin ezagutu, baina hainbat izan ziren bertan ikusi zituenak; horien artean, oraingoan ekarri ditugun irudiak: Wudang lurraldeko herritarren aurpegi, usadio eta lanak. Hala, orrialdeotan bertako emakume eta gizon baserritarren hamaika aurpegi, bizimodu eta ohitura dauzkagu ikusgai. Bistan denez, urruntasunak urruntasun, hainbat dira han eta hemen partekatzen ditugunak; baserriko bizimoduaren soiltasuna, baserritarren begirada sakona, mendeetan gordetako ohiturak...

Argazkiak: **Hodei Torres**





Pinosolo kiroldegia > Arcain eta Aros zigortuta, informazioa trukatzegatik

Kiroldegiko lanak esleitzeko prozesua ikertzeko Batzordea abiatu dute

Obra handia izatekoa zen Pinosoloko kiroldegiarena, baina momentuz ez da gauzatuko. Lanak esleitzeko prozesuan irregulartasunak salatu dituzte, behin eta berriro, enpresek eta alderdi politikoek. Arcain eta Aros enpresak zigortu ditu Lehiaren Euskal Agintaritzak, eta Udalak Ikerketa Batzordea abiatu du.



Pinosolo ingurua, kiroldegia egin gura zuten eremua

Pinosolo kiroldegia eraikitzeo kontratua esleitzerakoan informazioa elkar trukatzegatik zigortu dituzte enpresa bi, “*interes publikoari eragin zioten lehia desleialeko jokabideak*” direlako: Arcain Ingeniaritza eta Arkitektura SL, eta Aros Arkitektura Estudioa SA. Arcainek idatzi zituen lehiaketaren baldintzak, eta Arosek eta beste enpresa batek osatu taldeak irabazi zuen. Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) zigortu ditu Arcain eta Aros, eta 89.000 eta 45.000 euro ordaindu behar dute, hurrenez hurren. Izan ere, lehiaketaren baldintzak argitaratu baino urtebete lehenagoko proiektu batean agertzen da egitasmo irabazlea: Arcainen Olatu Artifizialaren proiektuan.

LEAk ez du zigortu beste enpresarik, ezta Udala eta Leioa Kirolak enpresa publikoa ere (kiroldegiaren lanen kudeatzailea). Halere, kiroldegiaren kontratua bertan behera uzteagatik kalte-ordainik ez ordaintzeko agindu dio LEAk Leioa Kirolaki (2,5 milioi euro). Gainera, LEAk eskatu du lanak esleitu zitzaizkion enpresa-elkarteari gastuetan ordaindutako 1,6 milioi euro itzultzeko Leioa Kirolaki. Aldi baterako enpresa-elkarte (ABEE) hori osatzen dute Aros estudioak eta Viuda de Sainz enpresa eraikitzaileak.

Beste alde batetik, Ikerketa Batzordea

abiatu du Udalak, kiroldegiko lanak esleitzeko prozesua ikertzeko eta udal-ordetzari aukerak erabazteko. Batzordean alderdi politikoek hainbat pertsona deklaratu: Ene-

Beste enpresak, Leioa Kirolak elkarrea eta Udala ez dituzte zigortu


ko Arruabarrena alkate ohia, hainbat zinegotzi, udal-teknikariak, enpresetako ordetzariak, Kirolgintza Bizkaiko Aldundiko enpresaren ordetzaria, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko dekanoa, e.a. Udaren ostean izango ei da hori, baina esatea deklaratu borondatezkoa dela.

Deklarazioak amaitutakoan, ondorioak aterako ditu Batzordeak, eta horiekaz zer erabakiko du (beharrezkoa balitz

bide judizialek jo, Udaleko Osoko Bilkuran tratatu, e.a.). Gogoratzea lanak esleipena bertan behera utzi zuela Leioa Kirolak enpresak eta lehiaketa barrirako deialdirik ez dagoela. Hau da, kiroldegi barririk ez da egingo epe laburrean.

60 milioi euroko afera

Pinosolon kiroldegi bat eraikitzea erabaki zuen Udalak 2007an, eta horretarako 60 milioi euro bideratzea. Lanok kudeatzeko, barriz, Leioa Kirolak enpresa publikoa sortu zuen. Era berean, Udalak Arcain Ingeniaritza eta Arkitektura SL enpresa kontratatu zuen aurretiko azterketak egiteko eta lehiaketaren baldintzak idazteko (Udalagaz aurretiko kontratua dauka Arcain enpresak hirigintza lanetan laguntza tekniko emateko. Bestalde, Pinosoloko igerilekuen eta Olatu artifizialaren egitasmoak idatzi zituen). Kiroldegiaren lehia-



Kiroldegiaren proiektu esleipendunaren infografia

ketarako baldintza horiek 2009ko ekainean argitaratu zituzten: horien arabera, proiektuaren aurrekontua ezin zen izan aurreikusitako eskaintzaren %95 baino txikiagoa. Horrela, aurkeztutako proiektu danek aurrekontu bera zeukaten eta, beraz, ebaluazio teknikoaren arabera aukeratu zuten kiroldegiaren proiektua. Lan hori Arcain enpresak egingo zuen, AFP kirol aholkularitza taldeagaz batera. 2010eko otsailean, lanak Viuda de Sainz eta Aros enpresa taldeari esleitu zizkion.

Baina lehiaketarako proiektua aurkez-

Batzordean alkate ohiak, zinegotziak eta enpresek deklaratu eskatu dute

tu zuen beste enpresa batek, DGM arkitektura estudioak, helegitea aurkeztu zuen eta Udalak zati bat onartu. Halere, bigarrenez eta hirugarrenez esleitu zizkion lanak ABEE berari, DGMk helegiteak eta administrazioarekiko auzi-prozesuak aurkeztu ostean. Hain zuzen ere, DGMk 2011n aurkeztutako salaketari emandako erantzuna izan da LEAren zigorra. Arestian esan bezala, Aros eta Arcain zigortu

DATA ESANGURATSUAK:

- 2008ko iraila: Leioa Kirolak sortzen du Udalak.
- 2009ko ekaina: lehiaketaren baldintzak argitaratzen dira.
- 2010eko otsaila: lanak lehen esleipena Aros eta Viuda de Sainz enpresa-elkargoari.
- 2010eko otsaila: DGM enpresak helegitea aurkeztu dio esleipenari.
- 2010eko uztaila: bigarren esleipena Aros eta Viuda de Sainzi.
- 2010eko uztaila: DGMk helegitea aurkeztu dio bigarren esleipenari, eta salatu du esleitutako proiektua lehiaketa baino urtebete lehenago idatzita zegoela.
- 2010eko azaroa: helegitea partzialki onartu eta esleipena bertan behera uzten dute.
- 2011ko urtarrila: DGMk administrazioarekiko lehen auzi-prozesua aurkeztu du.
- 2011ko otsaila: lanak hirugarren esleipena Aros eta Viuda de Sainzi.
- 2012ko uztaila: Leioa Kirolak ebazten du proiektua bertan behera uztea, eta Aros eta Viuda de Sainzi 1,6 milioi euroko gastuak ordaintzea.
- 2013ko maiatzak 21: LEAren zigorebapena kaleratzen da.
- 2013ko maiatzak 24: Udalaren Ikerketa Batzordea abiatzen da.

Pinosoloko igerilekuak





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Kimuak katalogoa

Aurkeztutako 75 lanetatik **zazpi aukeratu** dituzte, horietatik **hiru dokumentalak** dira

**KI
MU
AK**



*Euskadiko Film Laburrak
Selección de Cortometrajes Vascos
Selection of Basque Short Films*

Info+: www.kimuak.com/eu

Kimuak egitasmoaren helburua da urtean Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitzi diren hainbat film labur aukeratu eta horien sustapena eta banaketa bultzatzea. Horretarako, hautatutako lanak jasotzen dituen katalogoa plazaratzen dute. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila da (Etxepare Euskal Institutuaren bidez) Kimuak egitasmoaren bultzatzaile, eta Euskadiko Filmategia Fundazioak kudeatzen du. Edizio bakoitzeko katalogo bana argitaratzen dute eta 2013koa zazpi lanek osatzen dute.

Kimuaken aurtengo ekitaldira 75 film labur aurkeztu dituzte, eta katalogoa osatu dutenen aukeraketa hurren-

goek egin dute: Maialen Belokik (Donostiako Zinemaldiko Hautespen-batzordeko kidea eta Zinemira, Made in Spain eta Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa atalen Arduraduna), Josemi Beltranek (Donostia Kulturako Zinema Arduraduna), Lourdes Fernandezek (Alhondiga Bilbaoko Zuzendaria), Fernando Lopez de Castilok (Vitoria-Gasteiz Film Officeko zuzendaria eta zinema zuzendaria) eta Inguma Martinezek (ETBko albistegietako Kultura Arlo-burua). Epaimahaiko kideek azaldu dutenez, *“aurkeztutako film laburren maila altua izan da, horien artean zazpi baino ez aukeratzeko zail izan dugu”*.

Hala, 2013ko Kimuak katalogoa ondorengok osatzen dute: Asier Altunaren *Zela Trovke*, Aritz Morenoren *Colera*, Borja Cobeagaren *Democracia*, Izibene Oñederraren *Hotznanak*, Aitor Iturrizaren eta Bernat Gualen *Una Hora, Un*

«EAEn ekoitzi diren film laburrak sustatzea eta banatzea helburu»

Paso, Lander Camareroren *A Political Story* eta Raul de la Fuenteren *Minerita*. Azkeneko hirurak dokumentalen alorrekoak dira, eta baten bat dokumental faltsua edo fikzio-sailekoa; gainontzekoen artean animaziozko lanak ere badira. ○

Musiketxeak sarea

Sustapenerako erakuslehoak eskaini asmoz, **musika taldeentzako deialdia** martxan

musiketxeak

MUSIKETXEAK AZALETATIK SUSTRAIETARA GRUPO DEL MES MUSIKA MINTEGIAK MALETA MUGETATIK KANPO MUSIKATION

CONVOCATORIA – DEIALDIA

Euskal Herriko Musika Etxe Sarea (EHME)

MUSIKETXEAK Taldea deialdia 2013

Info+: www.musiketxeak.wordpress.com

Orain dela urte bi sortu zuten Musiketxeak Sarea Gasteizko Jimmy Jazz, Bermeoko Kafe Antzokia, Biarritzeko Atabal eta Bilboko Emankor eragile kulturalak. Ekimenak hiru helburu nagusi ditu: *“Zuzeneko musika-aretoetan proiektu soziokulturalak sustatu eta garatzea; Euskal Herriko musikari berrien harrobi sendo bat eratzea eta artista hauen egitasmoak zabaltzea eta ikusaraztea”*. Prestakuntza, sormena eta zabalakundea jomuga, sareak hainbat ekimen dauzka, barbarako: Hileko taldea, Musika Mintegiak, Maleta, Mugetatik Kanpo eta Musikation. Hala, horietako batzuetan

parte hartuko duten taldeak aukeratzeko deialdia abiatu dute; izen-emotea uztailearen 22ra arte egin daiteke. Euskal Herriko talde, bakarlarri edo DJak izan, parte hartzeko hurrengo baldintzak bete behar dituzte: gehienez 3 disko argitaratuta eduki eta kantak jatorrizkoak izatea. Bidali beharko dituzten kontuen artean daude: gutxienez 3 kanta, mp3 edo wma formatuan; biografia laburra, 2 argazkigaz; beharizan teknikoan *ridera*. Aukeratuerei sareak eskainiko dizkien jarduerak ordainsari bakoak dira, *“sustapenerako erakusleho”* direlako, halere Musiketxeak bere gain hartzen ditu zenbait gastu. ○

jaialdia > Bilbao Live

Uztailearen 12tik 14ra Kobetamendin egingo den Bilbao BBK Live jaialdiko kartelburuak ondorengoak dira: lehenengo eguneko Depeche Mode, bigarrenengo Kings Of Leon eta azken eguneko Green Day. Halaber, atzerriko beste zenbait talde aipagarri ere eskainiko dute kontzertua, besteak beste: Public Image Ltd (PIL), Vampire Weekend, Fatboy Slim, Mark Lanegan Band, Editors, Klaxons eta The Hives. Euskal taldeentzako lekua ere egin dute, eta esan daiteke aurreko urteotako eskaintza baino zabalagoa dela aurtengoa; joko duten batzuk aipatzearen: Fermin Muguruza eta Kontrakantxa, We Are Standard, Delorean eta Zuloak. Sarreraren prezioari dagokionez, hiru egunetarako bonoak 105 euro (banaketa gastuak: 6 euro) balio du, eta egun bakoitzerako sarrerak 49 euro (banaketa gastuak: 6 euro).

Info+: www.bilbaobbklive.com

grabatzen > Zea Mays

Zea Mays taldea zazpigarren diskoa prestatzen dabil, ekain amaieran bere webgunean jakinarazi zenez. Uztailearen 15ean Urdulizko Tio Pete estudioan sartuko dira abesti barriak grabatzeko, eta azaldu dutenez, *“oso zirraragarria da guretzat esatea oraingo honetan ekoizle batekin lan egitea erabaki dugula eta, lan hori burutzeko, Dave M. Allen ekoizle ingelesa gurekin egoteko zortea izan dugula. Bera ezaguna da The Cure taldeko lanik arrakastatsuenak ekoitzi dituelako...”*. Lan barria Londresen nahastu eta masterizatuko dute.

Info+: www.zea-mays.com

diskoak

NX
NX
Autoekoizpena




Iruñerriko boskote honetako hainbat kide Anorexia taldeak datoz. NX edo NX Proiektua izena du taldeak, Berriozarko estudio batek lege, eta lehenengo lanari ere izen bera eman diote. *Rock* indartsuko, *metal* zein *punk* doinuko eta melodia askotako hamar abestik osatzen dute estreinako disko hau. Itziar abeslariak idatzi ditu letrak, euskaraz.

Fiachras eta Sumisión
City Blues
Bonberenea ekintzak



Erdibana egin dute Gipuzkoako Fiachras eta Gasteizko Sumisión City Blues taldeek EP eta CD euskarrietan plazaratu den lana. Talde bakoitzak bina abesti eskaintzen ditu. Hala, *rock* eta *funk* ikuteren batez, batetik Fiachrasen folkak eta bestetik Sumisión City Bluesen folk eta *country* erritmoek osatzen dute diskoa.

Ihes egin
Agustin Alkhat
UsoPop



Heletako musikari gazteak EPan kaleratu du lehenengo lana. *Folk*, *rock*, *folk pop*, *indie folk*eko eta *folk rock*eko mugen artean uger egiten duten doinuak sortutako sei kantuk osatzen dute diskoa. Atabala estudioetan grabatu ditu Alkhatek, eta alboan izan ditu Julien Labat, Xan Bidegain eta Felix Buff musikariak, eta Kamila Zubeldia eta Nahia Zubeldia koroetan.

uk zure publizitatea hemen!

publiuk@aldizkaria.biz · Tf. 944911337
www.aldizkaria.biz/publizitatea/

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eusko Herria kaleko bar) / Tf. 94 491 68 05 / Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bixitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Ipuin lehiaketa

Euskaraz zein gaztelaniaz, **istorio laburrak** bidaltzeko aukera **irailaren 2ra arte**

Ignacio Aldekoa ipuin-lehiaketaren aurtengo ekitaldia martxan ipini du Arabako Foru Aldundiak. Lehiaketara euskarazko zein gaztelaniazko lanak aurkez daitezke eta bidaltzeko azken eguna irailaren 2a izango da. Idatzi bakoitzak gutxienez 10 eta gehienez 25 orrialdeko luzera izan beharko du (inprenta letra, Arial 12 edo antzekoa; letero artean espazio bikoitza), eta ezingo da lan bera hizkuntza ezberdinetan aurkeztu; esan barik doa argitaratu bakoia izan behar duela. Sarietara dagokienez, hizkuntza-kategoria bakoitzeko irabazleek 6.000 euro jasoko dituzte.

Gasteizko idazlearen omenezko lehiaketak XLII. ekitaldia beteko du aurten, eta antolatzaileen egoitzara (alegia, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta

«Hizkuntza kategorian bakoitzeko irabazleek 6.000 euro jasoko dituzte»

Kirol Sailerak) bidali beharko dira lanak, hau da: Probintzia plaza 5, 3. solairua, 01001 Gasteiz. Aurkeztu beharrekoen zerrenda eta egiteko moduak Aldundiko webgunean kontsulta daitezke.

Ignacio Aldekoa Isasi (Gasteiz, 1925-Madril, 1969) idazleari eta haren lanari gorazarre egiten dio lehiaketa honek. Al-



Ignacio Aldekoa (Gasteiz, 1925-Madril, 1969)

decoak gaztelaniaz idatzi zuen bere obra osoa; poesia eta prosa landu zituen, eleberriak, baina batez ere kontakizun eta istorio laburrek osatzen dute bere obraren atal nagusia. Gasteizko familia onekoa zen eta Filosofia eta Letrak ikasi zituen Salamancako Unibertsitatean. Bere lanen artean aipagarritzat jo izan dira, besteak beste: *El fulgor y la sangre* (1954; Planeta sariko finalista izan zena) eta horren jarraipenarekin *Con el viento Solano* eleberriak, zein *Espera de tercera clase*, *Visperas del silencio* eta *El corazón y otros frutos amargos* kontakizun bildumak. ○

Info+: www.alava.net

liburuak



Gauzen ordena naturala
Antonio Lobo Antunes
Batzuen artean

Idazle lisboarrak 1992an kale-ratutako *A ordem natural das coisas* lana itzuli du Iñigo Roque Eguzkitzak Literatura Unibertsitate bildumarako. Lisboan, gehienak Benfica auzoan, gertatzen dira liburu-pasarte asko, Salazarren diktaduraren azken urteetan eta osteko lehenengoetan.



Egia Esan
Peru Magdalena Arriaga
Elkar

Berrizko idazleak aita desagertu eta haren lorratzen atzetik abiatzen den Kimu semearen (barne)bidaiagaz harrikatu du lan barria. "Aita zoroa, aita artista, aita ganorabakoa, bizizalea... aitak aspaldi eginiko bidaia berregiten du Kimuk, hark idatzitako koaderno beltza lagun.

[kirola]

GMGZ zirkuitua, gurean

Fundacion Baque-GMGZ zirkuituaren II. edizioa martxan; hurrengo ekitaldia, Getxon



Iñaki, Skufka Vietiz pelotari argentinarrak irabazi zuen lehen edizioa

Iñaki antolatu zuten lehen aldiz Baque Fundazioa-GMGZ pala zirkuitua Aritz Goikoetxea eta Jon Txaber Mendizabal getxoiztarrek, Patxi Ziskar eta Daniel Granadosegatz batera; aurten, daborduko martxan da II. edizioa. Hala, zirkuituaren bigarren hitzordua hilaren 20an eta 21ean izango da Getxoko Andra Mari frontoian. Egingo diren *open* denetan legez, Getxokoan, zapatu arrastiko 16:00etatik aurrera, gizonen txapelketa hasiko da; pala labur kategorian final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatu dira. Domekan, barriz, 10:00etan, emakumezkoen txapelketa hasiko da; hala, pala-goma kategoriako semifinala jokatu dute, eta ostean, gizonen txapelketa jarraituko dute. Ostean, Getxoko *openari* amaiera emateko, nesken finala jokatu da, eta azkenik mutilena. Antolatzaileen hitzetan, "zirkuituaren helburu nagusia palari falta zaion bultzada ematea da; betiere, pala ikuskizun ederren eskaintzea publikoak goza dezan". Aurten, guztira bost ekitaldi, bost *open* izango dira zirkuitu osoan: lehenengoa jada Gasteizko

Lakua frontoian jokatu zen ekainean; bigarrena, esan bezala, uztailaren 20an eta 21ean jokatu da Getxoko Andra Mari frontoian. Hirugarrena eta laugarrena Labrit Iruñeko frontoian eta Donostiako Atano frontoian, hurrenez hurren, eta zirkuitoari amaiera emateko, azken *open-a* Sopolako frontoian izango da azaroan.

«Euskal Herriko jokalariek ez ezik, kanpokoek ere hartuko dute parte»

Bertan, zirkuituaren irabazleak nortzuk diren erabakiko da. Bigarren zirkuitu honetan parte hartzen dabiltzan jokalarien artean Ibon Garate getxoiztarra, Gorka Alonso eta Gotzon Garai sopoloztarra eta Erik Zubiri eta *Kopi* armintzarrak daude. Horrez gainera, Nafarroa, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herriko jokalariek ere parte hartuko dute, baita Euskal Herriko kanpokoek ere. Aurten, frontoiko ikuskizun gehienetan legez, ikusleek kiniela azkarrak jokatzeke aukera izango dute zirkuitu osoan zehar. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**KANTXA
KIROL
MODA**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Garazi Sanchez > Praga

“Garagardoa oso merkea da, ura baino gehiago!”

Sopelatik Txekiar Errepublikara joan zen Garazi Sanchez hilabete batzuetarako. Goi-mailako Lanbide Heziketa modulua ikasi zuen, Bidaia-agentziei buruzkoa, eta lan esparruan esperientzia metatu guran joan zen Praga hiriburura, hotel batean lan egitera. Erasmus programaren bitartez bertako harreragile ibili da denbora honetan eta, horrela, ingelesa ere praktikatu eta hobetu ahal izan du. Baina lanean ibiltzeagatik ez du galdu aukera hiria ezagutzeko: gomendio ederrak emon ditu joan gura duenarentzako lagungarri. Eguntan itzultzekoa da Sopela bere herrira.



Zer bisitatu eta zer ez galdu

Txekiar Errepublikako hiririk polite-na da Praga. Alde zaharra Gizateriaren ondare izendatu zuen Unescok 1992an eta bidaiariak gurago dituzten 20 hirien artean dago. Gauzarik aipagarriena da Karlos zubia, handik gaztelura eta erloju astronomikora joatea dago oinez. Moldava ibaiak ere jende asko erakartzen du. Bisitatu beharreko beste leku bat da juduen auzoa: sinagogak eta hilerrri ikaragarria dauzka; alde egin baino lehen guraria eskatu behar da, jende askori betetzen zaio eta! Petrin parkera ere joan behar da, funikularrez: Pragako bistarik ederrenak ikusten dira bertatik. Hiriaren kanpoaldeko gazteluak ere zoragarriak dira!

Ezinbestekoa

Tabernak: herritarrek nahas zaitezke garagardoa edan bitartean. Denbora galditzen da, jende guztia zure laguna da eta

danok batera abesten amaitzen duzue, betiko lagunak legez. Gainera, garagardoa gauzarik merkeena da, ura baino gehiago!

Harritzeko modukoa

Eraikinak oso landuak dira: 1800 eta 1900ekoak dira, kolore biziak dituzte eta oso irudi eta eskultura bitxiak dauzkate. Atzerritarrek aho zabalik uzten dituzte. Buruak gorantz begira denbora osoan, lepoko minagaz bukatu arte.

Kontuz

Txekiarrak hainbeste aldiz inbaditu dituztenez, ez dira oso lagunkoiak: nahiz eta ingelesa jakin, ez dizute lagunduko; atzerritarrek arazo bezala ikusten dituzte. Kanean herritarrek uste dute lehentasuna dutela, bultzada asko emoten dute, bertakoak direla erakutsi eta nabarmendu guran. Halere, egunek aurrera egin ahala, hobeto eroaten ei da arazoa. ○



Nor da

Nongoa
Sopelakoa

Adina
26

Zertan dabil
Lanean hotel bateko harreragile, ingelesa hobetzeko, Erasmus programaren bitartez

Ikasketak
Goi-mailako Lanbide-Heziketa, Bidaia-agentziak.

Noiz arte
Hiru hilabete daroaz Pragan eta oraintsu itzultzekoa da

Non dago

Lurraldea
Txekiar Errepublika (78.866 kilometro koadro)

Hiria
Txekiar Errepublikako hiriburua da Praga

Azalera
496 kilometro koadro

Kokapena
Herriko ipar-mendebaldean

Biztanleria
1.262.106 biztanle

Hizkuntzak
Txekiera da ofiziala, baina mintzaira txikiak ere badaude

Dirua
Koroa txekiarra

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.

Galtzagorriak

Erraldoiak ezagutu ostean, tamaina ñimiñoako iratxoak aurkeztuko ditugu, beste kulturetan bezala, gurean ere ipotxak agertzen baitira. Prakagorriak, Galtzagorriak, Familiarrak, Bestemutilak eta abarrek jabeak egokitzen dizkien lanetan laguntzen diote, euren indarra eta botereak emanez.

Taldeko izakiak dira, lau aletik behe-rakoa ez den kopuruan agertzen dira beti. Galtzamotz gorri luzeak eta deigarriak daramatzate. Haien izaera bihurria eta jolasera da nolabait, eta lanerako joera naturala edukita ere, ez dute zalantzarik egiten ahal dutenean ondo pasatzeko.

Zenbaitetan sorgin eta aztiei laguntzen diete, eta euren indar eta botereak ematen dizkiete. Itxura ezberdinak har ditzakete: animalienak (intsektuak, batez ere), baita galtzamotz gorriko gizontxue-nak ere (irudi ohikoena eta izena ematen diona).

Orratzontzi batean hauetako pila bat eraman daitezke. San Juan gaua bereziki egokia zen haiek harrapatzeko; orratzontzi bat irekita uztea nahikoa zen galtzagorriak bertara sartzeko. Beren zerbitzuak eskuratzeko beste modu bat Baionara joatea zen. Esaten denez, han ontza erdi urrerren truke eros zitezkeen.

Pertsona bat larriki gaixorik dagoenean, galtzagorriez desegin behar da, haiek desagerrarazi, saldu, dohaintzan eman edo; bestela, ezingo baita hil.

Kondaira

Kortezubin kontatu ohi zuten aurreko mendearen hasieran gizon batek, urrezko ontza baten truke, Galtzagorri talde bat erosi zuela Baionako merkatu urrunean,



Galtzagorriak. Ilustrazioa: Daniel Castello

haiek: *“behar duzunean orratzontzia zabaldu eta egin behar dutena esan baino ez duzu egin behar”.*

«Bihurriak, jolaserakoak dira; lanerako joera naturala edukita ere, ez dute zalantzarik ahal dutenean ondo pasatzeko»

Prezioa altua zen, baina... merezi zuelakoan zegoen gure laguna!

Bizkaialdera bueltatu zen, eta handik egun batzuetara, unea iritsita, Galtzagorriak garraiatzeko erabilitako orratzontzia ireki zuenean, iratxo txikiak azkar irten ziren eta bueltaka hasi ziren, jabearen bu-

ruaren inguruan hegan egiten eta etengabe galdetzen ea zer nahi zuen haiek egitea. Honek lana agindu zien, eta segundo batzuen buruan ezin hobeto burutu zuten. Gizakiak, orduan, beste lan bat agindu zien, eta hori ere azkar batean egin zuten. Berehala burutu zuten hiru-garren lan bat eta gero, gizonak ez zekien jada zer agindu; beraz, bere inguruan bueltak emateari utz ziezaioten, ibaitik ura ekartzeko agindu zien, horretarako bahe bat erabiltzeko esanez.

Egia da, Galtzagorriak saiatu saiatu zirela, baina lan gisa ezinezkoa izan zen hura burutzea, urak halaberrez alde egiten zuelako zuloetatik. Azkenean, orratzontzira deskantsatzera joatea erabaki zuten. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi

Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx.

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZABAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:

94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



GOSARIAK PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)

[pintxotan]

Izokin-biribilkia

itsasoaren freskotasuna nagusi



Gaineko saltsak gozotasuna emongo dio izokinari

Izokina da, zenbaki honetan, Portu Zaharra tabernatik dakarkizugun pintxoaren protagonista nagusia. Erraza egitekoa eta jateko fresko-freskoa da honako pintxo hau; udan aproposena. Pintxoagaz hasteko arto-opila hartuko dugu supermerkatuetan, mexikar jakiak egiteko erabiltzen den horietako bat, hain zuzen. Horren gainean, gazta-krema apur bat zabalduko dugu eta uhaza ale batzuk jarriko ditugu; gazta -kremak kremotsua egingo du pintxo. Ondoren, xafla bi izokin kezatu jarriko ditugu uhazaren gainean. Behin izokina jarrita, opila biltzen hasiko gara. Horrela, kiribildua eginda daukagula pintxoari azken ikutua emongo diogu saltsa berezi batez. Saltsa egiteko ezitia, ziapea eta olio erabiliko ditugu; hiru osa-

gai horien kantitate berbera nahastuko dugu, eta prest izango dugu saltsa opilaren gainerik botatzeko. Beraz, egindako opil bilduaren gainerik saltsa tanta batzuk botako ditugu. Pintxoak zapoaren arteko kontrastea sortuko digu ahoan; izan ere, alde batetik, izokinak zapo gazia emongo digu; eta bestetik, opilaren gainean jarriko dugun saltsaren zapo gozoak eragindako kontrasteak eztanda egingo digu ahoan, izokina saltsaren aurrez aurre. Esan bezala, edozein momentutan egin dezakezu pintxo hau; izan ere, egiteko oso erraza da. Prest zaude sukaldean lanean hasteko? Egokiena udan egiteko. Osteko emaitzak merezi du eta! On egin! o

Osagaiak: izokina, uhaza, gazta-krema, arto-opila, ezitia, ziapea eta olio



Croissanterie Briocherie

MONIE JAIA 1
48993 Getxo (Bizkaia)
croissanterie-getxo.blogspot.com 94 460 86 48



BASARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria

ARTESANA


LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURIMENDI
Neguniko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T. 491 14 87 (sarera, Jata Mendia) T. 400 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Azterketak amaituta jaien txanda da orain, eta gogor ekin diozu parrandari: ez duzu gitxiago merezi! Iazko moduan lotu barik egongo zara hemendik eta irailera? Tentuz ibili!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Azkenean konbentzitu zaituzte lagunak eta sanferminetara joango zarete, ondo ekipatuta gainera: arropa zuria, gerriko gorria eta egunkaria... Adi ibili, zezenek ez zaitzabela harrapa!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Bigarren deialdirako lotu zitzaizkizun hainbat irakasgai eta azkenean amaitu dituzte azterketak, bejondeizula! Lasai egon eta lasai ospatu, dena gaituzte duzu eta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Jaiak hasi dira eta hor zabilza, lan eta lan. Gogorra bada ere, zulako jendeagaz ziur jai ederrak antolatuko dituzuela. Baina ez ahaztu: ondo pasatzeko tartea ere har ezazu!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Beste urteetan garai honetarako oso beltzaran zeunden, baina aurten eguraldiak ez dizu lagundu, zer egingo diogu! Ez zaitzez ozpindu eta, faborez, atera etxetik!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Zein ondo bizi zaren oporretan! Irakaslearen oporrak besteen hirukoitza, a zer pagotxa! Karibera joan zinen eta orain Mediterraneo aldera, krisiak eraginik ez zugaran...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Loteria erosten duzu, edozein motatako zozketatan parte hartzen duzu, bardin sari handia zein txikia, baina sekula ezer tokatu ez! Saiatu barrira, izarrak zure alde dituzte: baietz laster sariren bat irabazi!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Musikariarena bizitza krudela, gainontzekoak oporretan eta parrandan daudela, zu lanean jo eta ke! Ez kezatu horrenbeste, inork baino gehiago ligatzen duzu eta!

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Kristoren gogoagaz zenbiltzan eta lortu duzu, Iruñera joango zara entzierroan parte hartzeko. Kontuz ibil daitezela zezenak, zu baino ipurterre eta arriskutsuagorik ez dago eta!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Jon eta Kepa santu bikainak, zelako jaiak egiten dituzten eskualdean euren omenez! Elizara sekula ez zoaz, baina herriko jai bat ere ez duzu galduko, parrandazale galanta eginda zaudet!

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Beti izaten zara koadrilako zuriarena eta adarra jotzen dizute, baina aurten kontrakoa gertatu da: eguraldiari esker, lagun danak daude antzera; eskerrak zu solariumera joan zaren!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Maitale bikaina ei zara, izan ere, lagunak bidaia zoragarria oparituko dizu eta alkarregaz joango zarete datozen asteotan munduan barrena. Ez dakit zer egiten duzun, baina segi horretan!



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako
aldizkariaren
ekotzpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Udazkenak. 2. Rutenioaren ikur kimikoa. Elgoibarko elizatea. 3. Ala. Larreak. 4. Itsaspeko hondar eta lohietan bizi den arrain ezkata bakoa. Bizkaieraz, iratxea, garoa. Lehenengo bokala. 5. Ipar Euskal Herrian, tximeleta-irudiko lepoko xingola. Indioaren ikur kimikoa. 6. Urrearen ikur kimikoa. Zoriontasuna. 7. Tona berbaren laburdura. Euskal sindikatu bat. Aiako biztanle. 8. Fruitu mota, madaria. Enborren mami. 9. ... batean, berehala, segituan. Istu, listu, txistu. 10. Kezkatzeko zioa edo arrazoia.

Goitik behera

1. Urez bustiak. 2. Zalantzan ipini, dudadudan ipini. Du, haiei. 3. Lehenengo bokala. Eskain. Zakar, lakar. 4. Galioaren ikur kimikoa. Saski handiak. 5. Burdinola. Herriko mutilek andregaiari ezkon bezperan egiten zioten musika joaldia, galartsa. 6. Emakume izena. Amerikako Estatu Batuak, laburbilduta. 7. Indarrez jarria. Lehenengo pertsona. 8. Zer modutan?. Bizkaiko mendia, hegazkin istripu larri baten lekuko izan zena. Kontsonantea. 9. Edo. Inauteri. 10. Pertonez mintzatuz, itxura ezdeusetakoa.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Nortzuk dira zenbaki honetako Jentilkoba ataleko pertsonaiak?

> Aurrekoaren erantzuna: Elizako plaza, Plentzia

> Irabazlea: **Nekane Rotaetxe**

*deitu telefonoz: 944 911 337

Zein kontinentetan dago Mundukatuak ataleko protagonista?

- **Amerika**
- **Europa**
- **Afrika**

> Aurrekoaren erantzuna: Pirritx, Porrotx eta Marimototsek

> Irabazlea: **Andoni Sarasketa**

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Zaindu** Osteopatia-Fisioterapia **zaindu** Esku Teropia Zentrua

Doctor Landa 4, SOPELA.
Tel: 94 602 67 79

SARIA **berria** **Astakiloen abenturak**

Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



MARIBE URRESTIK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

URRESTI-URKIZA FAMILIA, 1905

Isabel Urkiza eta Angel Urresti orduko seme-alabakaz (gerora beste bi izan zituzten) ageri dira, XX. mende hasierako familia-argazki honetan. Karrantzakoa zen Isabel eta Bilboko Begoñakoa Angel, ezkondu eta Bizkaiko hiriburuko Alde Zaharra aukeratu zuten bizileku; oster, Areeta aukeratu zuten lanerako leku. Izan ere, udarako zein negurako bainuetxe bana zabaldu zuten Areetan. Udarako bainuetxea gaur egungo ontziralekutik gertu zegoen, baina Algortako eta Santurtziko itsasargien kaiak egin eta gero, halako afrontu egun batean marea asko goratu eta bainuetxea eraitsi zuen. Neguko, barriz, Urkijo kalean zegoen eta bainurako etxea zen. Angelen eta Isabelen iloba Maribe Urrestik azaldu digunez, aitak kontatuta daki uda partean andrazkoak arrastaka eta goitik behera tapatuta eroaten zituztela itsasbattereraino bainua hartzera, eta neguan itsasotik ponpa batez igotzen zutela ura etxeraino, gero berotu eta algak bota ondoren bezeroei bainua eskaintzeko. ○

Ezkerretik eskumara: Isabel Urresti Urkiza, Consuelo Urresti Urkiza, Angel Urresti, Isabel Urkiza, Enrique Urresti Urkiza, Jose Maria Urresti Urkiza, Milagros Urresti Urkiza, Maria Angeles Urresti Urkiza eta Anselmo Urresti Urkiza umetxoak.

TANIA DE SOUSA > abeslaria

“Topikoak gorroto ditut eta galdera topikoak ere bai!”

Testua: **Nerea Guijarrubia**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Urduria eta kementsua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez dut inoiz horrelakorik imajinatu, baina tira... Scarlett Johanssonen *Lost in translation* pelikulan.

Badakazu ohitura txarren bat?

Ohera berandu joatea.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Bizi? Gauza asko gabe bizi gaitezke, baina jasanezina bihurtuko litzaidake musika eta maitasunik gabe bizitzea.

Eta aitor dezakezun bizio bat?

Jatea!

Zein da zure ametsetako bat?

Musika egiten eta kontzertuak emoten jarraitzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Zestoako mendi eta erreka bideak. Nire herria delako eta deskonektatu nahi dudanean handik paseatzeak kriston pakea ematen didalako.

Gorroto duzun topikoa

Topiko guztiak eta galdera topikoak!

Zerk emoten dizu beldurra?

Heriotzak; topikoa ezta?

Azken aldian egin duzun erokeriarik handiena

Ezin dut kontatu!

Zein da zure musika talderik gogokoena?

Asko ditut, esanguratsua den bat: Supertramp.

Kontzerturik zirrargarriena?

Lehenengo kontzertuak; esaterako, Bilboko Kafe Antzokikoa. ○

LABURREAN—Zestoarra da *Zuloak* taldeko abeslaria: Tania de Sousa (1987). Iazko irailean, *Zuloak* taldeak lehen kontzertua eskaini eta ordutik ez diote jotzeari utzi; hala, gurean aurreko hilaren 27an ibili ziren, Sopelako *Sanpedro* jaietan kontzertua emoten. Ohikoa den legez, kontzertu horretan ere, eszenatokia erre eta hainbat izan ziren rock nota gogorraz apurtutako arau eta topikoak. Hasiara batean, Fermin Muguruzak egindako *Zuloak* dokumentalarentzat beren-beregi sortutako taldea bazen ere, musika munduan euren bide propioa urratzen ari da emakumez soilik osatutako rock taldea. Eta antza, euren kontzertu zerrrenda ikusirik, bide luzea egingo dute, rockzaleen mesedetan!

Emaiozu euskara

Familia bidezko
euskararen
jarraipena
bultzatzeko
kanpaina

Zure seme-alabak euskara osasuntsu eta aberatsean hazi daitezen, aditu guztiak bat datoz esatean familia dela haurrak behar dituen elikagaiak ondoen eskaintzen dizkion giroa



euskaraz hazi eta bizi dadin



Getxo ^{XXV}

nazioarteko jaialdia / festival internacional

& BLUES

uztaila 2013 julio
biotz aia plaza (algorta) bizkaia

18 osteguna / jueves
21:00 sharrie williams & the wise guys (6 €)

19 ostirala / viernes
21:00 diana fuchs band (6 €)

20 larunbata / sábado
21:00 charlie musselwhite band (6 €)
artista gonbidatua / artista invitado cedric burnside
23:00 piper ´s pub: los brazos (doan • gratis)

ERAKUSKETA:
GETXO & BLUES - 25 URTE
EXPOSICIÓN 25 AÑOS DEL GETXO & BLUES
ALGORTAKO KULTUR ETXEA / UZTAILA 1 - 19 JULIO

sarrerren salmenta = venta de entradas
bbk ren arrotarako kutzarazinetan en los cajeros de autoservicio de bbk

bbk[®]



www.getxo.net | 94 491 40 80



metro bilbao



bbk[®]



ELCORREO[®]